35	Liburu eta egunkariak. Ts	Libros y periódicos. Cm.	132	1.051.385	1.107.721	1.199.011
37	Jostailuak eta kirola. Ts	Juguetes y deporte. Cm.	37	1.575.651	1.575.651	1.735.177
38	Elik., edari eta tabako.ez diren bestelakoak. Ts	Resto Cm no alim., beb., y tabacos.	275	1.201.988	1.217.636	1.270.996
39	Merkataritza mistoa	Comercio mixto	88	931.416	953.638	960.993
40	Bi sardexkako jatetxeak	Restaurantes 2 tenedores	197	2.216.756	2.242.366	2.177.443
41	1 sardexkako jatetxeak	Restaurantes 1 tenedor	218	1.365.008	1.372.961	1.465.944
42	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak	Cafés y bares cat. especial	315	1.462.067	1.496.950	1.488.395
43	Kafetegi eta tabernak. Beste batzuk	Cafés y bares. Otros	1.043	1.172.160	1.186.085	1.230.928
44	Gainerako elikagai zerbitzuak	Resto Servicio Alimentación	67	1.214.844	1.235.036	1.341.377
45	Ostatu zerbitzua	Servicio de Hospedaje	38	1.889.870	1.980.874	1.848.259
46	Etxeko artikulak elektrikoak (Konponketa)	Artículos eléctricos hogar (Reparación)	116	1.170.018	1.179.081	1.216.407
47	Autoibilgailu eta bizikletak (Konponketa)	Automóviles y bic. (Reparación)	461	1.441.572	1.451.437	1.503.724
48	Industriako makinak (Konponketa)	Maquinaria industrial (Reparación)	112	2.225.948	2.241.676	2.255.300
49	Gainerako konponketak	Resto Reparaciones	147	1.046.948	1.055.777	1.049.892
50	Autotaxi bidezko garraioa	Transporte autotaxis	26	1.049.222	1.071.874	1.079.786
51	Errepide bidezko garraioa	Transporte carretera	518	1.540.463	1.557.614	1.589.926
52	Gainerako garraio eta komunikazioak	Resto Transporte y comunicaciones	39	1.577.542	1.577.542	1.843.703
54	Irakaskuntza	Enseñanza	107	260.733	249.652	290.047
55	Ileapaindegia	Peluquería	638	746.195	746.450	761.532
56	Apaintetarako areto eta institutoak	Salones e institutos de belleza	106	720.917	721.150	564.689
57	Gainerako zerbitzuak	Resto Otros Servicios	126	1.447.918	1.507.927	1.592.216
	GUZTIRA	TOTAL	10.523	1.366.723	1.380.214	1.415.580

Zenbatekoa mila pezetakotan / Importe en miles de pesetas

2. PERTSONA FISIKOEN ONDAREAREN GAINEN ZERGA. 1998KO EKITALDIA.

2.0. SARRERA

Apartatu honetan 1998ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga hartzen da aztergai, 1999an aurkeztutako aitortzen informazioan oinarrituz. Zehazki esanda, honako gaiak aztertzen dira: zergaren tributazioan eragina izan duen araudi aldaketa, aurkeztutako aitortzen kopurua, batera hartuta nahiz oinarri ezargariaren tarteen arabera taldekatuta, aitortu diren oinarri ezargari eta likidagarria, eta ondarearen osaera eta bere banaketa portzentuala, azken hau oinarri ezargariaren tarteen arabera eta ondasun moten arabera. Amaieran, zergaren emaitza jasotzen da, hau da, ordaindu beharreko kuota eta sortu den batez besteko karga tasa.

1999an 16.797 aitortzen aurkeztu dira ondarearen gaineko zergagatik, denak ere 1998. urteko datuei buruzkoak. Oinarri ezargari osoa 1.270.386 milioi pezetakoa izan da, dagozkion murrizpenak aplikatu ondoren 987.167 milioi pezetako oinarri likidagarria eman duena. Ekitaldian ordaindu beharreko kuota osoa 4.476 milioi pezetakoa izan da, eta horrek %0,45ean utzi du batez besteko karga tasa.

Aitortzen kopurua %2,8 igo da. 50 milioi pezetatik gorako oinarri ezargaria duten aitortzen gertatu da igoera hori, beheko tartetan aitortzen gutxiago aurkeztu direlako.

Aitortzen goiko tartetan gehitu direnez, oinarri ezargariak eta likidagarriak aurreko urtean baino zenbaterako handiagoak eman dituzte, eta %14,1 eta %17,8 gehitu dira hurrenez hurren.

Aitortutako ondarearen osagaiei dagokienez, balore higikorrek jarraitu dute nagusitzen, aitortu diren balore positibo guztien %62,3 hartu baitute, hau da, zorrak kontuan hartu gabe. Zorrak 5.551 milioi pezetatan gutxitu dira, aurreko urteetan ez bezala, eta %13,6 egin

2. IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO DE LAS PERSONAS FÍSICAS. EJERCICIO 1998.

2.0. INTRODUCCIÓN

En este apartado se analiza el Impuesto sobre el Patrimonio de las Personas Físicas correspondiente al ejercicio 1998, a través de la información contenida en las declaraciones presentadas en el ejercicio 1999. Concretamente se recoge el cambio normativo que haya podido afectar a la tributación del impuesto, se analiza el número de declaraciones presentadas en su conjunto así como agrupándolas por tramos de base imponible, la base imponible y la base liquidable declaradas, así como la composición del patrimonio y su distribución porcentual por tramos de base imponible y por tipo de bienes. Por último se recoge el resultado del impuesto, es decir, la cuota a ingresar y el tipo medio de gravamen originado.

En 1999 se han presentado un total de 16.797 declaraciones del impuesto sobre el patrimonio, que recogen datos correspondientes al año 1998. La base imponible total ha ascendido a 1.270.386 millones de pesetas, que tras aplicar las reducciones correspondientes ha generado una base liquidable por importe de 987.167 millones de pesetas. La cuota total a ingresar en el ejercicio ha sido 4.476 millones de pesetas, lo que ha supuesto un tipo medio de gravamen del 0,45%.

El número de declaraciones del impuesto ha aumentado un 2,8%. Dicho aumento corresponde a las declaraciones con bases imponibles superiores a 50 millones de pesetas, dado que en los tramos inferiores ha habido un descenso del número de declaraciones presentadas.

Al aumentar las declaraciones de los tramos más elevados, tanto la base imponible como la liquidable han incrementado su cuantía con respecto al año anterior, concretamente han crecido un 14,1% y un 17,8% respectivamente.

En la composición del patrimonio declarado siguen primando los valores mobiliarios, que este año representan el 62,3% del total de valores positivos declarados, es decir, sin tener en cuenta las deudas. Éstas, a diferencia de años anteriores, disminuyen en 5.551 millones de

dute behera 1997. urtearekiko.

Ordaindu beharreko kuota %28 gehitu da aurreko urtearen aldean. Tasa horrek oinarri likidagarriaren igoera gaintzen du (hamar puntu portzental baino gehiago), eta zergaren progresibitatea da horren arrazoia, igoerak goiko tarteetan gertatu direlako. Ekitaldiko batez besteko tasa efektiboa %0,45koa izanda, baina bere balioa aldatu egiten da tarte batetik bestera: 15 milioi bitarteko tarteetan %0,00koa izatetik %0,73koa izatera pasatzen da 250 milioitik gorako oinarri ezargarrietan.

2.1. ZERGAREN NONDIK-NORAKOAK

Hona hemen 1998. eta 1999. urteetan zerga honetan eragina izan duten xedapen arauemaileak:

- **1/1998 Foru Araua**, otsailaren 25ekoa, zerga neurriei buruzkoa.

- **160/1998 Foru Agindua**, otsailaren 25ekoa, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen, Ondarearen, Oinordetza eta Dohaintzen eta Zenbait Garraiobideren gaineko zergak kudeatzean aplikagarriak diren ibilgailu eta itsasontzi erabilien salmentarako batez besteko prezioak onartzen dituena.

- **1998ko martxoaren 11ko Agindua**, Burtsan negoziatutako baloreen zerrenda onartzen duena, 1997ko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko negoziazio edo likidazio balioa barne, 1997ko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako.

- **8/1998 Foru Araua**, abenduaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak dituena.

- **55/1999 Foru Agindua**, urtarrilaren 15ekoa, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplikagarri diren ibilgailu eta itsasontzi erabilien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituena.

pesetas, lo que supone un descenso del 13,6% con respecto a 1997.

La cuota a ingresar ha aumentado un 28% con respecto al año anterior. Tasa superior en más de diez puntos porcentuales al aumento de la base liquidable y que se debe a la progresividad del impuesto dado que los aumentos han sido en los tramos elevados. El tipo medio efectivo del ejercicio se ha situado en el 0,45%, pero su valor varía entre el 0,00% de los tramos de hasta 15 millones y el 0,73% correspondiente a las bases imponibles superiores a 250 millones de pesetas.

2.1. COMPORTAMIENTO DEL IMPUESTO

En 1998 y 1999 las disposiciones normativas que han afectado al impuesto han sido las siguientes:

- **Norma Foral 1/1998**, de 25 de febrero, de medidas fiscales.

- **Orden Foral 160/1998**, de 25 de febrero, por la que se aprueban los precios medios de venta de vehículos y embarcaciones usados, aplicables en la gestión de los Impuestos sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Patrimonio, Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones e Impuesto sobre Determinados Medios de Transporte.

- **Orden de 11 de marzo de 1998** por la que se aprueba la relación de valores negociados en Bolsa, con su valor de negociación o liquidación media correspondiente al cuarto trimestre de 1997, a efectos del Impuesto sobre Patrimonio de las Personas Físicas del año 1997.

- **Norma Foral 8/1998**, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Con efectos a partir del 1 de enero de 1999.

- **Orden Foral 55/1999**, de 15 de enero, por la que se aprueban los precios medios de venta de vehículos y embarcaciones usados, aplicables en la gestión de los Impuestos sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Patrimonio, Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones e Impuesto sobre Determinados Medios de Transporte.

- **1999ko martxoaren 17ko Agindua**, Burtsan negoziatutako baloreen zerrenda onartzen duena, 1998ko laugarren hiruilekoari dagokion batez besteko negoziazio edo likidazio balioa barne, 1998ko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako.

- **2/1999 Foru Araua**, apirilaren 26koa, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

- **3/1999 Foru Araua**, apirilaren 27koa, zerga neurriei buruzkoa.

Aldaketarik esanguratsuena 1/1998 Foru Arauan aurkitzen dugu. Izan ere, haren arabera jarduerari atxikitako ondasun eta eskubideak ondasun eta eskubide salbuetsien apartatuan sartzen dira jabeak bi ezkontideak direnean eta ondasun eta eskubideak ezkontideetako baten jarduera enpresarial edo profesionala garatzeko erabiltzen direnean.

2.2. AURKEZTUTAKO AITORPENAK

1998. urtean 16.797 aitorpen aurkeztu dira guztira, 1997an baino 464 aitorpen gehiago. Urte horien arteko bariazioa %2,8koa izan da termino portzentualetan.

Ekitaldi batetik bestera aurkezten diren aitorpen kopurua zer dela eta aldatzen den ulertzeko, badira zenbait faktore kontuan hartu beharrekoak direnak, hala nola, balio katastralak eguneratzea, burtsaren merkatua aldatzea, iruzurraren aurkako neurriak hartzea, e.a.. Hala ere, eta 2.1. taulan ikus daitekeenez, 1988-1998 epealdian minimo salbuetsia aldatu izana da gehien eragiten duen faktorea. Eragin hori aztertzerakoan, dena den, ezin esan daiteke seriea homogenea denik; izan ere, 1992tik aurrera aitortzeko obligazioa sortzen duten baldintzak oso bestelakoak dira aurreko ekitaldietakoan aldean.

1992tik 1994ra arte auzetutako aitorpen kopurua handituz joan da etengabe. 1995ean, ordea, aitorpen kopurua %2,3 jaitsi da minimo salbuetsiaren igoerarekin bat etorritik (hamabost milioikoa izatetik hamazazpi milioikoa izatera pasa zen), eta ez da 1993an aurkeztutako kopuru osora ere iristen. Hurrengo hiru urteetan, minimo salbuetsiak ez du aldaketarik izan eta aitorpen

- **Orden de 17 de marzo de 1999** por la que se aprueba la relación de valores negociados en Bolsa, con su valor de negociación o liquidación media correspondiente al cuarto trimestre de 1998, a efectos del Impuesto sobre el Patrimonio de las Personas Físicas del año 1998.

- **Norma Foral 2/1999**, de 26 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

- **Norma Foral 3/1999**, de 27 de abril, de medidas fiscales.

El cambio más significativo viene recogido en la Norma Foral 1/1998 por la que se modifica el apartado correspondiente a bienes y derechos exentos, ampliándose a aquellos bienes y derechos afectos a la actividad que sean comunes a ambos miembros del matrimonio, cuando se utilicen en el desarrollo de la actividad empresarial o profesional de cualquiera de los dos cónyuges.

2.2. DECLARACIONES PRESENTADAS

En 1998 se han presentado un total de 16.797 declaraciones, 464 más que en 1997, lo que ha supuesto en términos porcentuales una variación interanual del 2,8%.

La variación del número de declaraciones presentadas en los distintos ejercicios se ve condicionada por factores tales como el proceso de revisión de los valores catastrales, el desarrollo del mercado bursátil o las medidas de lucha contra el fraude, pero, como se puede apreciar en el cuadro 2.1. para el periodo 1988-1998, el factor que más influye es la variación del límite exento. A la hora de analizar este efecto ha de tenerse en cuenta que la serie no se puede considerar homogénea ya que a partir de 1992 las condiciones determinantes de la obligación a declarar difieren en exceso con respecto a los ejercicios precedentes.

Desde 1992 hasta 1994 el número de declaraciones presentadas ha ido aumentando. Sin embargo, en 1995, coincidiendo con el aumento del mínimo exento de quince a diecisiete millones de pesetas, el número de declaraciones disminuye en un 2,3%, siendo inferior incluso al total de las presentadas en 1993. En los tres años siguientes no ha variado el mínimo exento y el número de declara-

CUADRO 2.1. TAULA
Ondarearen gaineko zergaren aitortpenak. 1988-1998
 Declaraciones del Impuesto sobre el Patrimonio. 1988-1998

URTEAK AÑOS	AITORPEN KOPURUA NºDECLARACIONES	% ALDAKETA VARIACIÓN %
1988	14.118	
1989	15.226	7,8
1990	17.267	13,4
1991	17.905	3,7
1992	15.132	-15,5
1993	15.675	3,6
1994	15.793	0,8
1995	15.434	-2,3
1996	15.820	2,5
1997	16.333	3,2
1998	16.797	2,8

kopurua %2,5, %3,2 eta %2,8 igo da hurrenez hurren, burtsako merkatuaren portaera positiboaren ondorioz.

2.2. taulan 1998. urteko aitortpen kopuruaren banaketa erakusten da oinarri ezargarriaren tartean araber. Oinarri ezargarrien lehen bi tarteek aitortpen kopuru osoaren %1,4a hartzen dute. Obligazio pertsonalengatik salbuetsita dagoen minimoa hamazazpi milioikoa denez, bi tarte horietan jasota geratu dira bai ondasun eta eskubideen balioa kontuan hartu gabe aitortpena obligazio erreagatik aurkeztu behar duten subjektu pasiboak, bai eta ehun milioitik gorako ondasun eta eskubideak dauzkaten subjektu pasiboak, azken hauen zorrak direla-eta hamazazpi milioitik beherako ondarea eduki arren.

Aurreko ekitaldian gertatu bezala, aurkeztutako aitortpen kopururik handiena 25 eta 50 milioi pezeta bitarteko tartean ageri da (%39,5). Beste kopuru garrantzitsu bat 15 eta 25 milioi bitarteko tartetan ikus dezakegu: horien arteko tarte 10 milioikoa izanik, aurkeztutako aitortpen guztien %13,9a biltzen du honek. 1997. urtearekin alderatuz gero, lehen tartetan (50 milioitaraino) 529 aitortpen gutxiago aurkeztu dira eta gainerako tartetan, berriz, 993 aitortpen gehiago.

raciones presentadas ha aumentado en un 2,5%, un 3,2% y en un 2,8% respectivamente, debido al buen comportamiento del mercado bursátil.

La distribución del número de declaraciones del ejercicio 1998 por tramos de base imponible queda configurada según el cuadro 2.2. Los dos primeros tramos de bases imponibles suponen el 1,4% del total de declaraciones. Dado que el mínimo exento por obligación personal es de diecisiete millones, en estos dos tramos se recogen tanto los sujetos pasivos por obligación real que deben presentar su declaración independientemente del valor de sus bienes y derechos, como aquellos que posean bienes y derechos cuya valoración supere los cien millones de pesetas y que tengan deudas por un importe tal que determinen un patrimonio inferior a diecisiete millones.

Al igual que en el ejercicio anterior la mayor acumulación del número de declaraciones presentadas se concentra en el tramo de 25 a 50 millones, representando el 39,5%. Otra concentración importante se encuentra entre los tramos de 15 a 25 millones que, con una amplitud de diez millones recoge el 13,9% del total de las declaraciones presentadas. Comparando con 1997 hay una disminución de 529 declaraciones en los primeros tramos, hasta 50 millones, y un aumento de 993 declaraciones en los restantes tramos.

CUADRO 2.2. TAULA

Aitorpen kopurua oinarri ezargarriaren tarteen arabera
Número de declaraciones por tramos de base imponible

OINARRI EZARGARRIAREN TARTEAK TRAMOS DE BASE IMPONIBLE (milloi pta.kotan / millones ptas.)	AITORPEN KOPURUA NÚMERO DE DECLARACIONES		
	Kopurua Número	Portzentaia / Porcentaje	
		Guztira g/ % % s/total	% Metatua % Acumulado
Hasta 9 arte	122	0,7	0,7
9 - 15	113	0,7	1,4
15 - 20	732	4,4	5,8
20 - 25	1.588	9,5	15,2
25 - 50	6.643	39,5	54,8
50 - 100	4.631	27,6	82,3
100 - 250	2.344	14,0	96,3
Más de 250-tik gora	624	3,7	100,0
GUZTIRA / TOTAL	16.797	100,0	

2.3. OINARRI EZARGARRIA ETA OINARRI
LIKIDAGARRIA

1998ko ekitaldiko oinarri ezargarría 1.270.386 milioi pezetakoa izan da guztira. Aurkeztutako aitorpen kopuru osoarekin alderatuta, aitorpen bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 75,63 milioi pezetakoa da. Oinarri ezargarriari murrizpena kentzen bazaio oinarri likidagarria lortzen da. Bere emaitza 987.167 milioi pezetakoa izan da ekitaldi honetan. Ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko, berriz, oinarri likidagarriari karga eskala aplikatu behar zaio eta beronen emaitzari kenkariak, soberrakinak eta hobariak kendu. 1998an kuota hori 4.476 milioi pezetakoa izan da, eta oinarri likidagarriarekin erlazionatzen badugu %0,45eko batez besteko tasa efektiboa ematen du.

2.3. taulan 1995-1998 epealdiko ekitaldi bakoitzean zergak izan dituen emaitzak jasotzen eta alderatzen dira. Urte horietan zehar zergak baldintza homogeenak izan ditu minimo salbuetsiaren azken igoera 1995ean gertatu delako, lau urte hauetan aldaketarik gabe jarraitu duelarik.

1998. urtean aitorpen kopurua %2,8 igo da aurreko urtearen aldean, eta oinarri ezargarriak %14,1ko gehikuntza izan du. Bi aldaketa horien ondorioz, aitorpen bakoitzeko batez besteko zenbatekoak ia zazpi milioi terdi pezetatan egin du gora, hau da, %11 gehia-

2.3. BASE IMPONIBLE Y BASE LIQUIDABLE

La base imponible total del ejercicio 1998 ha ascendido a 1.270.386 millones de pesetas, que en relación con el número total de las declaraciones presentadas da un importe medio de 75,63 millones de pesetas por declaración. A la base imponible se le resta la reducción dando lugar a la base liquidable que en este ejercicio ha sido por importe de 987.167 millones de pesetas. La cuota a ingresar se obtiene tras aplicar la escala de gravamen a la base liquidable y restarle tanto las deducciones como los excesos y las bonificaciones. En 1998 esta cuota se ha situado en 4.476 millones de pesetas, que relacionándola con la base liquidable da un tipo medio efectivo del 0,45%.

El cuadro 2.3. recoge y compara los resultados del impuesto para cada ejercicio del periodo 1995-1998. A lo largo de estos años las condiciones del impuesto son homogéneas dado que el último aumento del límite de exención se produjo en 1995 y se ha mantenido constante en esto cuatro años.

En 1998 el número de declaraciones ha aumentado en un 2,8% con respecto al año anterior, la base imponible lo ha hecho en un 14,1%. Ambas variaciones han dado lugar a que el importe medio por declaración aumente en casi siete millones y medio de pesetas que en

CUADRO 2.3. TAULA

Oinarri ezargarria, oinarri likidagarria, murrizpenak eta ordaintzeko kuota. Bilakaera
Evolución de la base imponible, base liquidable, reducciones y de la cuota a ingresar

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1995	1996	1997	1998	% ALDAKETA / VARIACIÓN %		
						96/95	97/96	98/97
<i>OINARRI EZARGARRIA</i>	BASE IMPONIBLE							
<i>Aitorpen kopurua</i>	Nºdeclaraciones	15.434	15.820	16.333	16.797	2,5	3,2	2,8
<i>Zenbatekoa</i>	Importe	838.272	936.517	1.112.921	1.270.386	11,7	18,8	14,1
<i>Batez besteko zenbatekoa</i>	Importe medio	54,31	59,20	68,14	75,63	9,0	15,1	11,0
<i>MURRIZPENAK</i>	REDUCCIONES							
<i>Zenbatekoa</i>	Importe	262.095	268.752	277.521	283.220	2,5	3,3	2,1
<i>OINARRI LIKIDAGARRIA</i>	BASE LIQUIDABLE							
<i>Zenbatekoa</i>	Importe	579.308	670.440	838.103	987.167	15,7	25,0	17,8
<i>SARTU BEHARREKO KUOTA</i>	CUOTA A INGRESAR							
<i>Zenbatekoa</i>	Importe	2.319	2.721	3.498	4.476	17,3	28,5	28,0
<i>BATEZ BESTEKO T.EFEKTIBOA</i>	TIPO MEDIO EFECTIVO							
<i>Sartu beh.kuota/Oinar.likidag.</i>	Cuota a ing/Base liquidable	0,40%	0,41%	0,42%	0,45%	1,4	2,8	8,6

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

go 1997. urtean baino. Bestalde, murrizpenak aitorpen kopurua baino zazpi dezima portzental gutxiago igo dira. Gehikuntza txikiago hori onuragarria gertatu da oinarri likidagarriaren gehikuntza portzental oinarri ezargarriarena baino handiagoa izan dadin (%17,8 handiagoa hain zuzen). Ekitaldian ordaindu beharreko kuotak 978 milioi pezetako igoera izan du, hots, 1997koa baino %28 gehiago.

Batez besteko karga tasa efektiboari dagokionez - ordaintzeko kuota eta zergaren oinarri likidagarria erlazionatzen ditu honek- ehunen portzental bat igo da epealdiko ekitaldi bakoitzean: %0,40 1995ean, %0,41 1996an, eta %0,42 1997an. Azken urtean, ordea, igoera handiagoa dago, hiru ehunen portzental gehiago hain zuzen (%0,45). Gehikuntza hori zergaren progresibitate-agatik gertatzen da, aitortutako zenbatekoak karga eskalako goiko tarteetan direlako handiagoak, jasanarazitako tasa handiagoa den tarteetan alegia.

2.4. ONDAREAREN OSAERA ETA BANAKETA PORTZENTUALA TARTEEN ETA ONDASUN MOTEN ARABERA

1998ko ekitaldiari dagokion ondare aitortuaren egitura aurreko urteetakoaren parekoa da. Aitortutako

términos porcentuales supone un incremento del 11% con respecto a 1997. Por su parte, las reducciones aumentan siete décimas porcentuales menos que el número de declaraciones. Este menor incremento beneficia a la base liquidable que aumenta en mayor proporción que la base imponible, concretamente en un 17,8%. La cuota a ingresar en el ejercicio crece en 978 millones de pesetas, siendo un 28% superior a la correspondiente a 1997.

Con respecto al tipo medio de gravamen efectivo, el que relaciona la cuota a ingresar con la base liquidable del impuesto, aumenta una centésima porcentual en cada ejercicio del periodo pasando del 0,40% en 1995, al 0,41% en 1996, llegando al 0,42% en 1997. Sin embargo, en el último año se ha producido un aumento superior, concretamente de tres centésimas porcentuales situándose en el 0,45%. Dicho incremento es debido a la progresividad del impuesto ya que ha habido un aumento de las cuantías declaradas en los tramos superiores de la escala de gravamen donde el tipo repercutido es mayor.

2.4. COMPOSICIÓN DEL PATRIMONIO Y DISTRIBUCIÓN PORCENTUAL POR TRAMOS Y CLASES DE BIENES

La estructura del patrimonio declarado correspondiente al ejercicio 1998 se mantiene similar a la de los

zenbateko positiboen erdia baino gehiago (zorren ekarpen negatiboa alde batera utzita) balore higikorretatik dator, (%62,3 hain zuzen). Burtsako merkatuaren garrapenak duen eragin handia hor ikusten da.

2.1 grafikoan ikus daitekeenez, garrantzi ordenari begiratuaz ondasun higiezinak agertzen dira bigarren ondasun mota nagusi bezala (%25,9), eta honen ondoren kontu korranteetako edo aurrezki kontuetako gordailuak datoz (%6,5). Oinarri ezargarriaren gainerako %5,3a jarduera enpresarial eta profesionalek eratoritzen diren dirusarrerek eta eduki ekonomiko beste ondasun eta eskubideek osatzen dute %1,2 eta %4,1arekin hurrenez hurren. Azken hauen artean, bestalde, bizi aseguruak nabarmendu behar dira, %1,3ko ekarpena izan baitute hauek.

Oinarri ezargarriaren osagai positiboak tarteen arabera nola banatzen diren aztertzean, ekitaldi honek aurreko ekitaldietako joerari jarraitu diola ikus dezakegu. 2.2. grafikoak eta 2.4. taulak erakusten dutenez, ondasun higiezinak beheko tartetean dira nagusi, baina aitortutako oinarri ezargarriaren tarteen zenbatekoa gora doan neurrian horiek gutxituz doaz apurka apurka balore higikorren mesedean. Balore higikorrenegatik aitortutako zenbateko osoaren %83,6 azken hiru tartetean pilatzen da.

Kontu korranteetako eta aurrezki kontuetako gordailuei dagokienez, bestalde, hauek erdiko tartetean hartzen dute garrantzi gehien: 20 eta 100 milioi pezeta bitarteko oinarri ezargarria duten tartetean kontzeptu honengatik aitortutako balio osoaren %64,6 inguru biltzen da. Gainerako ondasun eta eskubideak ia aldatetarik gabe mantentzen dira tarte guztietan. Lehen tartean portzentaia aitortutako balore positiboen %3,5ekoa da, eta 250 milioitik gorako oinarri ezargarria duen tartean, berriz, %5,8koa.

1998ko ekitaldiko datuek aurreko ekitaldiko egitura berberari eusten diote. 2.5. taulan jasotzen denez, balore higikorrek dira oraindik ere partaidetza handiena hartzen dutenak, eta gainera bi puntutik gora igo dute beren ekarpen erlatiboa. Garrantzi ordenaren arabera, ondasun higiezinak datoz gero, oinarri ezargarriaren %26,6 hartzen dutelarik. 1997. urtearen aldean horiek 1,7 puntu portzental galdu dituztela azpimarratu beharra dago. Hirugarren lekuan kontu korranteetako eta

años anteriores, y sigue concentrándose más de la mitad del total de las cuantías positivas declaradas (sin tener en cuenta la aportación negativa de las deudas) en los valores mobiliarios, concretamente el 62,3%, de ahí la gran influencia del desarrollo del mercado bursátil.

El segundo tipo de bien en orden de importancia, según se puede apreciar en el gráfico 2.1., son los bienes inmuebles con un 25,9%, y le sigue en tercer lugar con un 6,5% los depósitos en cuentas corrientes o cuentas de ahorro. El restante 5,3% de la base imponible lo forman con un 1,2% los ingresos derivados de la actividad empresarial y profesional, y con un 4,1% el resto de los bienes y derechos de contenido económico entre los que cabe destacar los seguros de vida con una aportación del 1,3%.

Al analizar la distribución de los componentes positivos de la base imponible por tramos de la misma se sigue apreciando la continuidad de este ejercicio con respecto a los anteriores. Según muestran el gráfico 2.2. y el cuadro 2.4., los bienes inmuebles predominan en los tramos inferiores y paulatinamente disminuyen en favor de los valores mobiliarios conforme se incrementa la cuantía de los tramos de la base imponible declarada. En los tres últimos tramos se concentra el 83,6% del total de la cuantía declarada de los valores mobiliarios.

Por su parte, los depósitos en cuenta corriente y cuenta de ahorros tienen su mayor importancia en los tramos intermedios, entre los 20 y los 100 millones de base imponible se concentra casi el 64,6% del total del valor declarado por este concepto. Los demás bienes y derechos se mantienen prácticamente constantes en todos los tramos pasando de suponer el 3,5% de los valores positivos declarados en el primer tramo al 5,8% correspondiente al tramo de más de 250 millones de base imponible.

Los datos del ejercicio 1998 mantienen la misma estructura del ejercicio anterior. Según recoge el cuadro 2.5., el tipo de bien con mayor participación sigue siendo los valores mobiliarios que incluso aumentan su aportación relativa en más de dos puntos porcentuales. Le sigue en orden de importancia los bienes inmuebles que representan el 26,6% de la base imponible y que, a diferencia de los bienes anteriores, han sufrido una pérdida de 1,7 puntos porcentuales con respecto a 1997. El tercer tipo

aurrezki kontuetako gordailuak ageri dira, aurreko ekitaldiaren aldean ere bi puntu portzentual galdu dituztenak. Laugarren ondasun motak, jarduera enpresarial eta profesionaletatik datorrenak, bi dezima portzentaletan jaitsi du bere ekarpena: 1997an %1,4ko portzentaia izatetik %1,2ko portzentaia izatera pasa da 1998an, eta, gainera, lehen aldiz bizi aseguruaren azpian geratu da, kontzeptu honengatik 17.125 milioi pezeta aitortu baitira guztira (ekitaldiko oinarri ezargarri osoaren %1,3).

Urtearteko bariazioari dagokionez, 1998an artegaiak eta zaharkinak, jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak, enpresa eta lanbide jarduerari atxikitako ondasun eta eskubideak eta kontu korronteetako nahiz aurrezki kontuetako gordailuak, agerian zein epekakoak, gutxitu egin dira aurreko urtearen aldean. Jaitziera lehenengo kasuan da nabaria goa (-%22,7), baina galera kuantitatiborik handiena kontu korronteetako eta aurrezki kontuetako gordailuetan gertatu da 10.993 milioi pezeta jaitsi direlako

de valor está formado por los depósitos en cuenta corriente y de ahorro que también descienden en dos puntos su porcentaje de participación en relación con ejercicio anterior. El cuarto tipo de bien, el derivado de las actividades empresariales y profesionales, ha disminuido su aportación en dos décimas porcentuales, pasando de representar el 1,4% en 1997 a ser el 1,2% en 1998, viéndose superado por primera vez por los seguros de vida que con 17.125 millones de pesetas declaradas, representa el 1,3% del total de la base imponible del ejercicio.

Con respecto a la variación interanual, en 1998 tanto los objetos de arte y antigüedad como los derechos de la propiedad intelectual o industrial, los bienes y derechos afectos a las actividades empresariales y profesionales, y los depósitos en cuenta corriente, cuenta de ahorro, a la vista o a plazos disminuyen con respecto al año anterior, siendo más acentuado en el caso de los primeros con una variación porcentual de un -22,7%, aunque cuantitativamente la mayor pérdida se centra en los depósitos en cuenta corriente y ahorro que con una tasa

GRAFICO 2.1. GRAFIKOA
Oinarri ezargarriaren egitura. 1998
Estructura de la base imponible. 1998





GRÁFICO 2.2. GRAFIKOA

Oinarri ezargarriaren egitura portzentuala O.E.aren tarteen arabera. 1998
Estructura porcentual de la base imponible por tramos de B.I. 1998



(-11,5%koa izan da urtearteko tasa).

Gehikuntza handiagoa izan duten ondasun eta eskubideak, bestalde, balore higikorak eta ondasun higiezinak dira, lehenengoak 127.093 milioi igo direlako eta bigarrenak 22.953 milioitan gehitu dutelako beren balioa. Azpimarratzekoa da bizi aseguruaren 3.848 milioi pezetako igoera, %29 gehitzea ekarri duena. Gehikuntza portzentualik handiena aldi baterako eta biziarteko errentei dagokie, urtearteko tasa %42,1ekoa izan delarik.

Aurreko ekitaldietan ez bezala, 1998an zorrak jaitsi egin dira. Ekarpen negatiboa aurreko ekitaldian baino 5.551 milioi pezeta txikiagoa izan da, hau da, %13,6 gutxiago.

Batera hartuta, oinarri ezargarria 157.465 milioi

interanual del -11,5% ha supuesto una disminución de 10.993 millones de pesetas.

Por su parte, los bienes y derechos que han tenido un mayor aumento cuantitativo han sido los valores mobiliarios que se han elevado en 127.093 millones de pesetas, y los bienes inmuebles que han aumentado su valor en 22.953 millones. Resaltar el aumento de 3.848 millones de pesetas correspondiente a los seguros de vidas que ha supuesto un incremento del 29%, siendo el mayor aumento porcentual el correspondiente a las rentas temporales y vitalicias que obtiene una tasa interanual del 42,1%.

A diferencia de ejercicios anteriores, en 1998 las deudas han descendido. Su aportación negativa ha sido 5.551 millones de pesetas menor que la del ejercicio precedente, lo que supone un descenso del 13,6%.

En conjunto, la base imponible aumenta en

CUADRO 2.4. TAULA

Aitorpen kopurua eta oinarri ezargariaren osagaien zenbatekoa tarteen arabera
Número de declaraciones e importe de los componentes de la base imponible por tramos

KONTZEPTUA CONCEPTO	OINARRI EZARGARRIAREN TARTEAK / TRAMOS DE BASE IMPONIBLE (milioi pta.kotan / millones ptas.)																GUZTIRA	
	HASTA 9 ARTE		9 - 15		15 - 20		20 - 25		25 - 50		50 - 100		100 - 250		MÁS 250- TIK GORA		TOTAL	
	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe	Ait.Kp. Nº decl.	Zenbat Importe
<i>Ondasun higiezinak</i>																		
Bienes inmuebles	73	746	107	1.179	696	8.013	1.495	18.035	6.299	96.891	4.371	98.883	2.227	78.689	599	35.784	15.867	338.219
<i>Enpresa eta lanbide jarduerak</i>																		
Activ. empresariales y profesionales	11	89	9	5	67	211	136	600	613	3.895	392	4.577	148	2.243	32	4.194	1.408	15.815
<i>K/k / aur. kutx. gord. agerik. / epek.</i>																		
Depos. c/c., cta. ahor., a la vista o a plazos	77	113	84	145	615	1.469	1.369	3.899	5.963	25.891	4.284	24.723	2.205	17.685	604	10.486	15.201	84.409
<i>Balore higikorrak</i>																		
Valores mobiliarios	61	642	79	471	583	4.449	1.299	14.006	5.999	113.501	4.453	188.575	2.319	241.275	615	249.919	15.408	812.837
<i>Bizi aseguruak</i>																		
Seguros de vida	10	9	17	46	77	264	201	532	980	4.078	696	4.526	391	4.149	97	3.522	2.469	17.125
<i>Aldi baterako eta biziarteko errentak</i>																		
Rentas temporales y vitalicias			1	1	6	10	24	70	63	299	48	276	23	148	5	389	170	1.193
<i>Bitxiak, apain-larruak eta ibilgailuak</i>																		
Joyas, pieles de car. suntuario y vehíc.	9	6	12	30	83	154	147	104	539	495	351	475	208	258	60	146	1.409	1.668
<i>Artegaiak eta zaharkinak</i>																		
Objetos de arte y antigüedad	2	3	3	6	4	4	1	1	12	14	15	59	13	38	5	164	55	290
<i>Esk. erreal., emakida adm., kontr. auker.</i>																		
Dhos. rel. conc. adm., opc. contract.					5	7	14	44	58	259	61	594	47	837	12	167	197	1.907
<i>Jabeg. intel. eta ind.tik erator. eskub.</i>																		
Dchos. prop. intel. o industrial	3	0			2	8	2	3	29	178	24	321	25	353	9	752	94	1.615
<i>Eduki ekon.ko beste ondasun eta eskub.</i>																		
Dem. bienes y dchos. conten. económ,	6	33	7	20	43	116	89	378	530	3.449	532	6.678	387	6.634	142	13.325	1.736	30.633
<i>Zorrak</i>																		
Deudas	43	1.268	50	473	192	1.301	362	1.826	1.460	9.128	981	8.319	623	6.640	224	6.370	3.935	35.325
<i>Oinarri ezargarría</i>																		
Base imponible	122	372	113	1.429	732	13.405	1.588	35.845	6.643	239.822	4.631	321.369	2.344	345.668	624	321.477	16.797	1.270.386

Zenbatekoa milioi pezetaketan / Importe en millones de pesetas

pezeta handiagoa da, urtearteko bariazio tasa %14,1ean utziz. Tasa hau handia bada ere, ez da aurreko ekitaldian lortutakora iristen.

Zenbatekoekin gertatu bezala, 1998an aurkeztutako aitorpen kopuruaren banaketak ere aurreko urteko egitura berbera mantentzen du. 2.6. taulan erakusten denez, aitorpen kopururik handiena hiru ondasun motatan aurkitzen dugu: ondasun higiezinetan (%94,5), kontu korranteetako eta aurrezki kontuetako gordailuetan (%90,5), eta balore higikorretan (%91,7).

157.465 millones de pesetas que representan una tasa de variación interanual del 14,1%, tasa elevada pero inferior a la alcanzada en el ejercicio precedente.

Al igual que con los importes, la distribución del número de declaraciones presentadas en 1998 mantiene la misma estructura del año anterior. Según se recoge en el cuadro 2.6., el mayor número de declaraciones se concentra en tres tipos de bienes: en los bienes inmuebles con un 94,5%, los depósitos en cuentas corrientes y de ahorro con un 90,5% y en los valores mobiliarios que son recogidos en el 91,7% de las declaraciones presentadas.

CUADRO 2.5. TAULA
Aitortutako ondarearen osaera portzentuala. 1997-1998
 Composición porcentual del patrimonio declarado. 1997-1998

KONTZEPTUA CONCEPTO	1997		1998		ALDAKETA VARIACIÓN	
	Zenbatekoa Importe	O.E. % % S/ B.I.	Zenbatekoa Importe	O.E. % % S/ B.I.	Zenbatekoa Importe	%
<i>Ondasun higiezinak</i> Bienes inmuebles	315.266	28,3	338.219	26,6	22.953	7,3
<i>Enpresa eta lanbide jarduerak</i> Activ.empresariales y profesionales	15.947	1,4	15.815	1,2	-132	-0,8
<i>K. kor.etako gordailuak, aur. kontuetakoak, agerikoak edo epe.koak</i> Depósitos en c/c, cta de ahorro, a la vista o a plazo	95.402	8,6	84.409	6,6	-10.993	-11,5
<i>Balore higikorrek</i> Valores mobiliarios	685.744	61,6	812.837	64,0	127.093	18,5
<i>Bizi aseguruak</i> Seguros de vida	13.277	1,2	17.125	1,3	3.848	29,0
<i>Aldi baterako eta biziarteko errentak</i> Rentas temporales y vitalicias	839	0,1	1.193	0,1	354	42,1
<i>Bitxiak, apain-larruak eta ibilgailuak</i> Joyas, pieles de caráct.suntuario y vehiculos	1.585	0,1	1.668	0,1	83	5,2
<i>Artegaiak eta zaharkinak</i> Objetos de arte y antigüedad	375	0,0	290	0,0	-85	-22,7
<i>Esk. errealak, emakida adm., kontratuzko aukerak</i> Dchos r., conces.adm., opc. contractuales	1.561	0,1	1.907	0,2	346	22,2
<i>Jabego intelekt. eta industrialetik eratorritako eskubideak</i> Dchos de la propiedad intelectual o ind.	1.669	0,1	1.615	0,1	-53	-3,2
<i>Eduki ekonomikoko beste ond.eta eskub.</i> Demás bs y dchos de contenido econ.	22.132	2,0	30.633	2,4	8.502	38,4
<i>Zorrak</i> Deudas	-40.876	-3,7	-35.325	-2,8	5.551	-13,6
OINARRI EZARGARRIA BASE IMPONIBLE	1.112.921	100,0	1.270.386	100,0	157.465	14,1

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

Aitorpenen urtearteko bariazioari begiratzuz gero, guztira 464 aitorten gehiago aurkeztu direla antzematen da, %2,8 gehiago 1997. urtearekin alderatuta.

Kontzeptuen arabera aztertzen baditugu, aitorten kopuruan igo direnak hauek dira: ondasun higiezinak, kontu korranteetako eta aurrezki kontuetako gordailuak, balore higikorrek, bizi aseguruak, eta eskubide errealak, emakida administratiboak eta kontratuzko aukerak. Horien artean, balore higikorrek eta ondasun higiezinak lortu dute gehikuntza kuantitatiborik handie-

En la variación interanual de las declaraciones presentadas hay un aumento de las mismas en 464 declaraciones lo que representa un incremento del 2,8% con respecto a 1997.

Por conceptos, los que aumentan su número de declaraciones son los bienes inmuebles, los depósitos en cuenta corriente y de ahorro, los valores mobiliarios, los seguros de vida y los derechos reales, concesiones administrativas y opciones contractuales. De entre ellos, los bienes con mayor aumento cuantitativo son los valores mobiliarios con 597 declaraciones más y los bienes

CUADRO 2.6. TAULA
Aitorpen kopuruaren banaketa portzentuala. 1997-1998
Distribución porcentual del número de declaraciones. 1997-1998

KONTZEPTUA CONCEPTO	1997		1998		ALDAKETA / VARIACIÓN	
	Zenbatekoa	O.E. %	Zenbatekoa	O.E. %	Zenbatekoa	
	Importe	% S/ B.I.	Importe	% S/ B.I.	Importe	%
<i>Ondasun higiezinak</i> Bienes inmuebles	15.438	94,5	15.867	94,5	429	2,8
<i>Enpresa eta lanbide jarduerak</i> Activ.empresariales y profesionales	1.507	9,2	1.408	8,4	-99	-6,6
<i>K. kor.etako gordailuak, aur. kontuetakoak, agerikoak edo epe.koak</i> Depósitos en c/c, cta de ahorro, a la vista o a plazo	14.859	91,0	15.201	90,5	342	2,3
<i>Balore higikorrak</i> Valores mobiliarios	14.811	90,7	15.408	91,7	597	4,0
<i>Bizi aseguruak</i> Seguros de vida	2.311	14,1	2.469	14,7	158	6,8
<i>Aldi baterako eta biziarteko errentak</i> Rentas temporales y vitalicias	194	1,2	170	1,0	-24	-12,4
<i>Bitxiak, apain-larruak eta ibilgailuak</i> Joyas, pieles de caráct.suntuario y vehículos	1.415	8,7	1.409	8,4	-6	-0,4
<i>Artegaiak eta zaharkinak</i> Objetos de arte y antigüedad	69	0,4	55	0,3	-14	-20,3
<i>Esk. errealak, emakida adm., kontratuzko aukerak</i> Dchos r., conces.adm., opc. contractuales	195	1,2	197	1,2	2	1,0
<i>Jabego intelekt. eta industrialetik eratorritako eskubideak</i> Dchos de la propiedad intelectual o ind.	117	0,7	94	0,6	-23	-19,7
<i>Eduki ekonomikoko beste ond.eta eskub.</i> Demás bs y dchos de contenido econ.	1.756	10,8	1.736	10,3	-20	-1,1
<i>Zorrak</i> Deudas	3.700	22,7	3.935	23,4	235	6,4
OINARRI EZARGARRIA BASE IMPONIBLE	16.333	100,0	16.797	100,0	464	2,8

na: lehenengoen aurreko ekitaldian baino 597 aitorpen gehiago izan dituzte, eta bigarrenek 429 aitorpen gehiago. Portzentualki, gehikuntza tasarik handienak bizi aseguruetan eta balore higikorretan gertatu dira (%6,8 eta %4 hurrenez hurren). Gainerako kontzeptuetan aitorpen kopurua jaitsi egin da, eta horien artean enpresa eta lanbide jarduerak eta aldi baterako eta biziarteko errentak dira behar bada kuantitatiborik handiena izan dutenak: lehenengoen 99 aitorpen gutxiago izan dute (%6,6 gutxiago) eta bigarrenek 24 aitorpen gutxiago (-%12,4ko urtearteko tasa). Hala ere, portzentualki, jaitsierarik bortitzenak artegai eta zaharkinetan eta jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubidee-

inmuebles que presentan 429 declaraciones más que en el ejercicio anterior. Porcentualmente, las tasas de crecimiento más elevadas corresponden a los seguros de vida y a los valores mobiliarios con tasas del 6,8% y del 4% respectivamente. El resto de los conceptos disminuyen su número de declaraciones. De entre ellos, los mayores descensos cuantitativos se recogen en las derivadas de las actividades empresariales y profesionales que disminuyen en 99 declaraciones, lo que supone un decremento del 6,6%, y en las rentas temporales y vitalicias que con 24 declaraciones menos obtiene una tasa interanual de -12,4%. Sin embargo, porcentualmente corresponde a los objetos de arte y antigüedades y a los derechos de la pro-

tan aurkitzen ditugu: $-20,3\%$ eta $-19,7\%$ hurrenez hurren.

Aitorpenen banaketa eta aitortutako ondarearen osaera portzentuala batera aztertzen baditugu, esan behar da aitorpen kopurua gutxitu dutenen artean badi-rela hiru kontzeptu zenbateko txikiagoak ere izan dituztenak, eta hauek dira: jarduerari atxikitako ondasun eta eskubideak, artagaiak eta zaharkinak, eta jabetza intelektual eta industrialetik datozen eskubideak. Aitorpen kopuru gehitu eta, aldi berean, aitortutako zenbatekoa gutxitu duen ondasun mota bakarra kontu korronteetako eta aurrezki kontuetako gordailuei dagokie: 342 aitorpen gehiago aurkeztu dira kontzeptu honengatik, baina aitortutako zenbatekoa 10.933 milioi pezeta txikiagoa izan da. Bestalde, bitxiak, apain-larruak eta ibilgailuak, eta, orobat, aldi baterako eta biziarteko errentak alderantziz eboluzionatu dira: 83 eta 354 milioi pezeta gehiago aitortu dira, hurrenez hurren, 1997. urtearen aldean, baina lehen kasuan 6 aitorpen gutxiago aurkeztu dira, eta bigarrenean 24 gutxiago. Gainerako ondasunei dagokienez, esan behar da igoera gertatu dela bai aitorpen kopuruan eta bai aitortutako zenbatekoan; hala ere, azpimarratu behar da, zenbatekoaren igoera portzentuala aitorpen kopuruarena baino handiagoa izan dela. Egoera hori bera oinarri ezargarrian ere gertatu da: aurkeztutako aitorpenak $2,8\%$ igo diren bitartean, aitortutako zenbatekoak $14,1\%$ egin du gora 1997. urtearen aldean.

2.5. ORDAINTZEKO KUOTA ETA BATEZ BESTEKO TASA

Oinarri ezargarría kalkulatu ondoren, dagokion murrizpena aplikatu behar zaio oinarri likidagarria lortzeko. Ateratzen den zenbatekoari karga eskala aplikatuz kuota osoa lortzen da. Kuota horri kenkariak kentzen badizkiogu ordaintzeko kuota ateratzen da azkenean. 1998an 4.476 milioi pezetakoa izan da.

Ekitaldi honetako zenbatekoak aurreko ekitaldian izandakoekin alderatuz gero (ikus 2.7. taula) garbi ikusten da oinarri ezargarría igo izanak eta murrizpenen gehikuntza xumeak eragin egin dutela oinarri likidagarria oinarri ezargarría baino gehiago igo dadin: $17,8\%$

iedad intelectual o industrial los descensos más pronunciados, con unas tasas del $-20,3\%$ y del $-19,7\%$ respectivamente.

Analizando conjuntamente la distribución de las declaraciones con la composición porcentual del patrimonio declarado, de entre los conceptos con reducción del número de declaraciones hay tres que también reducen su importe, y son: los bienes y derechos afectos a la actividad, los objetos de arte y antigüedades, y los derechos de la propiedad intelectual e industrial. El único tipo de bien con aumento del número de declaraciones pero que disminuye su importe declarado es el correspondiente a los depósitos en cuenta corriente y cuenta de ahorro que con 342 declaraciones más presentadas ha disminuido en 10.933 millones de pesetas su cuantía declarada. Por su parte, las joyas, pieles de carácter suntuario y vehículos, así como las rentas temporales y vitualicias actúan de manera inversa dado que aumentan el importe declarado en 83 y 354 millones de pesetas respectivamente con relación a 1997 y se han presentado menos declaraciones que en el ejercicio anterior, concretamente 6 menos en el primer caso y 24 declaraciones menos en el segundo. El resto de los bienes declarados aumentan tanto su número de declaraciones como su importe declarado siendo destacable el hecho de que el aumento porcentual del importe sea superior al incremento del número de declaraciones. Esta situación es la que se ha dado en la base imponible que con un aumento del $2,8\%$ en las declaraciones presentadas el importe es superior en un $14,1\%$ al correspondiente a 1997.

2.5. CUOTA A INGRESAR Y TIPO MEDIO

Una vez calculada la base imponible se le practica la reducción correspondiente obteniendo así la base liquidable, y es sobre esta cuantía sobre la que se aplica la escala de gravamen para obtener la cuota íntegra. A esta cuota se le restan las deducciones dando como resultado la cuota a ingresar que en el ejercicio 1998 ha ascendido a 4.476 millones de pesetas.

Comparando las cuantías de este ejercicio con el anterior, según refleja el cuadro 2.7., se observa que el aumento de la base imponible, acompañado por el bajo incremento de las reducciones ha repercutido en la base liquidable que crece más que la base imponible, concre-

egin du gora 1997ko ekitaldiaren aldean. Zergaren progresibitatea dela medio, eta aitorten kopuruaren gehikuntza zergaren goiko tarteetan gertatuenez, ekitaldiko kuota osoak %27 egin du gora. 1998ko kenkariak %21,9 igo dira, eta horrek eragin positiboa izan du ekitaldian ordaindu beharreko kuotan, kuota osoa baino gehiago gehitu delako, hain zuzen ere, %28 gehiago 1997. urtean baino.

Oinarri ezargarriaren murrizpena, aurreko ekitaldiko mailan mantetzen dena (hamazazpi milioi), aitorten guztietan da aplikagarria, tributatzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboan aitortenetan izan ezik. 1998ko ekitaldiko murrizpenak 5.699 milioi pezeta igo dira 1997koan baino (%2,1eko gehikuntza urte batetik bestera), hau da, aitorten kopurua baino zazpi dezima porzentual gutxiago igo da. Beraz, oinarri ezargarria %14,1 igo den bitartean, oinarri likidagarriak %17,8 egin du gora 1997. urtekoaren aldean. Dirutan adierazia, igoera 149.064 milioi pezetakoa izan da.

Oinarri likidagarriari karga eskalaren arabera dagokion zerga tasa aplikatzen bazaio kuota osoa kalkulatzeko. 1998ko ekitaldian, kuota hori 1.272 milioi pezetatan gehitu da aurreko ekitaldiaren aldean. Kontuan hartzen badugu aplikatu den karga eskala 1997an bezala mantendu dela, gehikuntza horren arrazoia zergaren progresibitatean bilatu behar dugu, aur-

tamente es un 17,8% superior a la del ejercicio 1997. Debido a la progresividad del impuesto, y como los aumentos de declaraciones se han concentrado en los tramos altos del impuesto la cuota íntegra del ejercicio ha aumentado un 27%. Las deducciones en 1998 aumentan un 21,9% lo que beneficia a la cuota a ingresar del ejercicio, que crece más que la cuota íntegra, siendo superior en un 28% a la correspondiente a 1997.

La reducción de la base imponible, que se mantiene en diecisiete millones como en el ejercicio anterior, es aplicable en todas las declaraciones salvo en aquellas que correspondan a sujetos pasivos por obligación real de contribuir. En 1998 la reducción ha sido 5.699 millones de pesetas superior a la del año anterior lo que supone un incremento interanual del 2,1%, es decir, crece siete décimas porcentuales menos que el número de declaraciones. En consecuencia, frente a un incremento del 14,1% en la base imponible, la base liquidable crece un 17,8% con respecto a la obtenida en el ejercicio 1997, en términos monetarios supone un aumento de 149.064 millones de pesetas.

A la base liquidable se le aplica el tipo impositivo correspondiente según la escala de gravamen calculándose la cuota íntegra. En el ejercicio 1998 esta cuota ha aumentado en 1.272 millones de pesetas con respecto a la alcanzada el año anterior. Teniendo en cuenta que la escala de gravamen se ha mantenido igual que en 1997, este aumento se debe a la progresividad del impuesto

CUADRO 2.7. TAULA

Oinarri likidagarria, kuota osoa eta ordaintzeko kuota. 1997-1998
Base liquidable, cuota íntegra y cuota a ingresar.1997-1998

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	ALDAKETANVARIACIÓN	
		Zenbatekoa Importe	Zenbatekoa Importe	Zenbatekoa Importe	%
Oinarri ezargarria	Base imponible	1.112.921	1.270.386	157.465	14,1
Murrizpena	Reducción	277.521	283.220	5.699	2,1
OINARRI LIKIDAGARRIA	BASE LIQUIDABLE	838.103	987.167	149.064	17,8
KUOTA OSOA	CUOTA ÍNTEGRA	4.706	5.977	1.272	27,0
Soberakina	Exceso	1.224	1.497	274	22,4
Atzerriko zergak eta hobariak	Impuestos extranjeros y bonificaciones	8	4	-4	-45,2
KUOTAKO KENKARIAK	DEDUCCIONES DE LA CUOTA	1.232	1.502	270	21,9
SARTU BEHARREKO KUOTA	CUOTA A INGRESAR	3.498	4.476	978	28,0

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

keztutako aitorpen kopurua zergaren goiko tartean igo delako.

Zergaren kenkariak kuotaren soberakina eta atzerriko zergak eta hobariak kontuan hartuz finkatzen dira. Obligazio pertsonalagatik tributatu behar duten subjektu pasiboek muga bat dute jarria kuota osoan: kuota horrek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera, ezin du azken zerga honen oinarri ezargarri osoaren %70 gainditu. 1998an, soberakin hori 1.497 milioi pezetakoa izan da guztira, aurreko ekitaldian baino %22,4 gehiago. Bestalde, atzerrian ordaindutako zergak eta ondasun eta eskubideengatik jasotako hobariak %45,2 jaitsi dira aurreko ekitaldiaren aldean (ondasun eta eskubide horiek oinarri ezargarriaren konputatzen dira Ceutan eta Melillan helbideratuta dauden eta xede soziala bertan duten entitate juridikoen kapital sozialaren balore adierazgarriak badira, edo leku horietan kokatutako establezimendu iraunkorrek izanez gero). Kuota osoari 1.502 milioi pezetako kenkariak aplikatu zaizkio guztira, aurreko ekitaldian baino 270 milioi gehiago. Terminu portzentauekin %21,9ko gehikuntza adierazten du horrek.

1998an zehar 2.764 sozietate bildu dira guztira zerga pizgarrietara, hau da, ekitaldi horretan Sozietateen gaineko Zergaren aitopena aurkeztu duten 12.934 enpresen %21,4a, 1997an baino %21,7 gehiago (2.272 sozietatek egin zuten aitopena urte horretan). Azken urteotan, eta hainbat arrazoi direla medio (batik bat araudiaren aldaketatik eta ziklo ekonomikoaren bilakaera beragatik), bildutako enpresa kopuruak gora-beherak izan ditu, nahiz eta 1996. urteaz geroztik kopuru hori %50etik gora igo den.

4. INCENTIVOS FISCALES DE SOCIEDADES. EJERCICIO 1998

4.0. INTRODUCCIÓN

Los datos que se presentan a continuación se han extraído de las declaraciones del Impuesto sobre Sociedades (modelos 200 y 201) correspondientes al ejercicio de 1998, presentados durante 1999; concretamente se parte de los datos rellenos por cada empresa en la hoja referente a los incentivos fiscales, y se tienen en consideración tanto a las empresas de normativa foral de Gipuzkoa, como a las de otras normativas forales y las de normativa estatal.

Para las empresas que tributan según la proporción del volumen de operaciones realizado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, los importes de inversión y deducción se han multiplicado por dicho porcentaje. En principio se considera que las empresas realizarán sus inversiones proporcionalmente al volumen de operaciones realizados en el territorio. Por ejemplo, para una empresa con inversiones por valor de 200, pero que realiza en Gipuzkoa el 50% de sus operaciones, se ha tomado 100 como valor de inversión.

Además hay que tener en cuenta que si bien los importes de inversión y gasto hacen siempre referencia a los realizados durante el ejercicio de 1998, las cuantías de deducción se refieren a la deducción aplicable, es decir, que la deducción a la que hacemos referencia puede o no puede haberse aplicado en la liquidación del ejercicio 1998, según la situación de cada empresa, y además siempre teniendo en cuenta los límites y orden de aplicación de beneficios fiscales a que hace referencia el artículo 46 de la Norma Foral 7/1996 del Impuesto sobre Sociedades.

El número de sociedades acogidas a incentivos fiscales durante 1998 ha ascendido a 2.764, el 21,4% de las 12.934 empresas que presentan declaración en ese ejercicio, y un 21,7% más que las 2.272 que se acogieron en 1997. A lo largo de los últimos años, y debido a diversas razones (sobre todo a cambios normativos y a la propia evolución del ciclo económico), el número de empresas acogidas ha sufrido diversos altibajos, si bien desde 1996 el número ha crecido en más de un 50%.

1998an 137.485 milioi pezetako pizgarriak eman dira gastu eta inbertsioengatik, eta kenkari aplikagarria 22.771 milioi pezetakoa izan da. Aurreko urtearen aldean horien portzentaiak %9,1 eta %21,0 igo dira hurrenez hurren. Lehenago azaldu bezala, kopuru horiek Gipuzkoan egindako eragiketa portzentaiaren arabera lurralde horri egotzitako inbertsio eta kenkariari dagozkie, eta gainera, kenkariaren kasuan, kenkari aplikagarriari egiten zaio erreferentzia, ez ekitaldian benetan aplikatutakoari.

Zerga pizgarrien kontzeptu generikoaren azpian helburu desberdinetara bideratuta dauden neurriak biltzen dira: enpresek aktibo finko material berrietan (AFMBetan) egiten duten inbertsioari pizgarriak ematea, gure ekonomiarako lehentasunezko hartzen diren zenbait jarduera sustatzea (ikerketa eta garapena, ingurugiroaren hobekuntza eta artapena, esportazioa, enpresako langileen prestakuntza, etab.) eta enpresen finantzazioa hobetzea.

Zerga neurririk garrantzitsuena, hala inbertsio eta gastuan nola kenkari aplikagarrian, aktibo finko material berrian egindako inbertsioa da. Guztira 92.239 milioi pezeta inbertitu dira (kopuru osoaren %67,1) eta 13.697 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan du (%60,1). 1997. urtearekin konparaturik, inbertsioa %24,0 igo da eta kenkaria %25,3.

Egindako inbertsioak sailkatzen badira inbertsio gai den aktiboaren Kontabilitate Kodearen arabera, ikus dezakegu makineria erosteko erabilitako zenbatekoak (35.526 milioi pta. guztira) AFMBan inbertitutakoaren %38,5 direla, eta horrek 3.285 milioi pezetako kenkari aplikagarria izan duela (%38,3). Garrantzi handia du, baita ere, ekitaldiko inbertsio eta kenkari osoari dago-kionez, kontzeptu guztien kopuru osoaren %25,8 eta %23,1 baita hurrenez hurren.

Kopuruz bigarrenak eraikuntzetan egindako inbertsioak dira (22.146 milioi, hau da, AFMBan egindako inbertsio guztien %24,0); horren atzetik, instalazio teknikoetan inbertitutakoa dugu (7.520 milioi eta %8,2), beste instalazio batzuetan inbertitutakoa (7.078 milioi eta %7,7) eta, azkenik, garraio elementuetan egindakoa (6.456 milioi eta %7,0). Gainerako azpikontzeptuek (aplikazio informatikoak, altzariak, informazioa prozesatzeko ekipoa eta bestelako ibilgetu materiala) ez

La cuantía total de inversión y gasto incentivados durante 1998 asciende a 137.485 millones de ptas., y su deducción aplicable a 22.771 millones; el incremento respecto al año anterior ha sido del 9,1% y del 21,0%, respectivamente. Como hemos mencionado anteriormente estos importes hacen referencia a la inversión y deducción imputados a Gipuzkoa según el porcentaje de operaciones realizados en el territorio, y además en el caso de la deducción hace referencia a la deducción aplicable y no a la realmente aplicada en el ejercicio.

Bajo el concepto genérico de incentivos fiscales agrupamos toda una serie de medidas destinadas a incentivar la inversión empresarial en activos fijos materiales nuevos (AFMN), a promover determinadas actividades consideradas prioritarias para nuestra economía (investigación y desarrollo, mejora y conservación del medio ambiente, exportación, formación del personal de la empresa, etc.) y a mejorar la financiación de las propias empresas.

La medida fiscal más importante, tanto en términos de inversión y gasto realizados como de deducción aplicable, es la inversión en activo fijo material nuevo, ya que con 92.239 millones de ptas., representa el 67,1% del total de la inversión, y con 13.697 millones el 60,1% de la deducción aplicable. En comparación con 1997, la inversión crece un 24,0% y la deducción un 25,3%.

Si clasificamos las inversiones realizadas según el Código Contable al que pertenece el activo objeto de la inversión, observamos cómo los importes destinados a la adquisición de maquinaria (35.526 millones de ptas.) representan el 38,5% de lo invertido en el ejercicio en AFMN y los 3.285 millones de deducción aplicable el 38,3%. Cabe destacar así mismo su importancia en relación a la inversión y deducción conjunta del ejercicio, pues supone el 25,8% y el 23,1%, respectivamente, del total por todos los conceptos.

Le siguen en orden de importancia cuantitativa las inversiones en construcciones (el 24,0% del total por AFMN con 22.146 millones de ptas.), en instalaciones técnicas (8,2% y 7.520 millones), en otras instalaciones (7,7% y 7.078 millones) y en elementos de transporte (7,0% y 6.456 millones). El resto de subconceptos (aplicaciones informáticas, mobiliario, equipos para procesos de información y otro inmovilizado material) no sobrepasan individualmente ni los 4.000 millones de ptas. de

dute banaka hartuta 4.000 milioi pezetatik gorako inbertsiorik izan eta AFMBan inbertitutakoaren %5a ere ez dute gainditzen.

Inbertsio produktiboetarako erreserba bereziaren zuzkidura 3.383 milioi pezetakoa izan da (kopuru osoaren %2,5 eta 1997an baino %61,7 gutxiago) eta 340 milioi pezetako kenkariak egin dira (kopuru osoaren %1,5 eta %61,5 gutxiago).

Beste inbertsio batzuen taldea harturik, horietako hiru aipatuko ditugu: batetik, errenta aldakorreko baloreak eskuratzeko egindako inbertsioak, 23.171 milioi pezeta inbertitu direlako (kopuru osoaren %16,9) eta 1.395 milioi pta.ko kenkariak egin (kopuru osoaren %6,1). 1997. urtearen aldean, neurri hau %14,2 jaitsi da inbertsioari dagokionez eta %1,0 kenkari aplikagarriari dagokionez. Bestetik, esportazioak sustatzeko egindako gastuak, guztira 8.364 milioi pezetakoak izan direnak (kopuru osoaren %6,1) eta 2.091 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan dutenak (ekitaldiko %9,2). Bi zenbaterik horiek igo egin dira aurreko urtearen aldean, %45,9 inbertsioa eta %46,0 kenkaria. Azkenik, aipatu beharreako da ikerkuntza eta garapen teknologikoko programetan egindako inbertsio eta gastua, 5.931 milioi pezetakoa guztira (kopuru osoaren %4,3), 1.666 milioi pezetako kenkariak egiteko aukera eman duena, hau da, kenkari guztien %7,3a. Inbertsioa eta gastua %2,7 jaitsi da, eta kenkaria, berriz, %1,2.

Enplegua sortzeagatik 2.966 milioi pta.ko kenkari aplikagarria gertatu da. Kopuru horren %92,2 (2.735 milioi) kenkari orokorrari dagokio, eta gainerakoa, hau da, 231 milioi (%7,8) kenkari bereziari. 1997. urtearekin konparaturik, kenkari osoa %52,4 gehitu da, kenkari orokorra %62,9 igo eta kenkari berezia %13,6 jaitsi. Pizgarriak izan dituen plantila gehikuntza 4.769 pertsonakoa izan da urteko

Pizgarrietara bildutako sozietateak izaera juridikoren arabera sailkatzen baditugu hauxe ikus dezakegu: erantzukizun mugatuko sozietateak kopuru osoaren erdia baino gehiago dira (2.764tik 1.507), sozietate anonimoek (1.103 enpresak) %39,9 hartzen dute, sozietate kooperatiboek (114 enpresak) %4,1, eta gainerako sozietateen taldea nekez iristen da %1,4ra (40 enpresa bildu dira pizgarrietara).

inversión ni el 5% del total invertido en AFMN.

La dotación a la Reserva Especial para Inversiones Productivas se ha elevado a 3.383 millones de ptas. (2,5% del total y 61,7% menos que en 1997) y su deducción a 340 millones (1,5% del total y 61,5% menos).

Del grupo de Otras inversiones vamos a mencionar a tres de ellas; primero la inversión en adquisición de valores de renta variable, que se eleva a 23.171 millones de ptas. (16,9% del total) y su deducción a 1.395 millones de ptas. (6,1% de total). Esta medida ha disminuido un 14,2% en la inversión respecto a 1997, y un 1,0% en la deducción aplicable. Segundo, los gastos realizados en el fomento de las exportaciones, 8.364 millones de ptas., es decir, el 6,1% del total, con una deducción aplicable de 2.091 millones de ptas. (9,2% del ejercicio). Estos dos importes crecen en comparación con el año anterior, un 45,9% la inversión y un 46,0% la deducción. Y tercero y último, el importe de la inversión y gasto realizados en programas de investigación y desarrollo tecnológico, que se ha elevado a 5.931 millones de ptas. (4,3% del total), lo que ha posibilitado aplicarse deducciones por valor de 1.666 millones de ptas., un 7,3% del total de deducciones. La inversión y gasto realizado disminuye un 2,7%, mientras que la deducción lo hace un 1,2%.

La deducción aplicable por creación de empleo asciende a 2.966 millones de ptas., de los cuales el 92,2% (2.735 millones) corresponden a la deducción general, mientras que el resto, 231 millones de ptas., (el 7,8%) a la deducción especial. Respecto a 1997, la deducción total se ha incrementado un 52,4%, frente a la subida del 62,9% de la deducción general y la caída del 13,6% de la especial. El incremento de plantilla incentivado asciende a 4.769 personas/año.

Si clasificamos a las empresas acogidas según su forma jurídica, vemos como las sociedades de responsabilidad limitada representan más de la mitad del total (1.507 sobre 2.764), las sociedades anónimas con 1.103 empresas acogidas el 39,9%, las cooperativas con 114 empresas acogidas el 4,1%, mientras que el grupo formado por el resto de sociedades apenas llega al 1,4% con 40 empresas acogidas.

Kopuruz erantzukizun mugatuko sozietateak baino gutxiago izan arren, sozietate anonimoek ekitaldiko inbertsio eta kenkari gehienak metatzen dituzte; zehazki esateko, inbertsio guztiaren %60,9 dira (137.485 milioitik 83.692 milioi) eta kenkariaren %56,3 (22.771 milioitik 12.817 milioi). Sozietate kooperatiboek ere, kopuru osoaren %4,1 izan arren, erantzukizun mugatuko sozietateek baino portzentaia handiagoak dituzte: %18,8 inbertsioan eta %21,7 kenkarian (beste horienak %15,1 eta 18,4koak izan dira hurrenez hurren). Azkenik, "bestelakoen" taldea nekez iristen da inbertsio osoaren %5,2ra eta kenkariaren %3,6ra.

Ekonomiaren oinarrizko hiru sektoreak aztergai harturik (nekazaritza, industria eta zerbitzuak), berehala ohartzen gara lehen sektorean oso enpresa gutxi bildu direla pizgarrietara (2.764tik 11 baino ez, hau da, kopuru osoaren %0,4); gainerakoa ia kopuru berean banatzen da beste bi sektoreen artean, nahiz eta hirugarren sektorea gutxigaitik nagusitzen den: 1.427 enpresa bildu dira sektore honetan (%51,6) eta 1.326 enpresa industri sektorean (%48,0). Hala ere, ekitaldiko inbertsio eta kenkari osoari erreparatzen badiogu, indarren oreka hori apurto egiten da, industri sektoreak bi herenak hartzen baititu bi kontzeptuetan eta, zerbitzuen sektoreak beste herena.

Sailkapen zehatzago bat eginez, hau da, pizgarrietara bildutako enpresak Ekonomi Jardueren gaineko Zergan duten epigrafearen arabera sailkatuz, 22 jarduera adarretan taldekatu ditugu enpresa horiek. Merkataritza adarrak hartu du bildutako enpresa kopururik handiena (749 guztira), hau da, kopuru osoaren %27,1a. Haren atzetik, baina 10 puntu portzental baino gehiago galduz, merkataritzako beste zerbitzuak datoz %16,7rekin (461 enpresa).

Ekitaldiko inbertsio osoari dagokionez, bi azpisektore azpimarratu behar dira: batetik, lehen aipatu den merkataritzako beste zerbitzuena (17.275 milioi pta. eta %12,6) eta, bestetik, makinariarena (15.658 milioi eta %11,4). Badira, hala ere, beste lau adar hamar mila milioiko inbertsioa gainditu dutenak: eraikuntza metalikoak, oinarrizko metalgintza, merkataritza eta metalgaiak. Kenkari aplikagarri osoan, zazpi sektorek gainditu dute 1.500 milioi pta.ko kopurua: lehen aipatu diren sei horiek gehi garraio eta komunikazioen sektoreak.

Las sociedades anónimas, a pesar de representar menos en número que las sociedades de responsabilidad limitada, acumulan la mayoría de las inversiones y deducciones del ejercicio, concretamente el 60,9% de la inversión total (83.692 millones de ptas. sobre 137.485 millones) y el 56,3% de la deducción (12.817 millones de ptas. sobre 22.771 millones). Incluso las propias sociedades cooperativas, que representan sólo el 4,1% del total, acumulan porcentajes superiores a las sociedades de responsabilidad limitada, el 18,8% de la inversión y el 21,7% del deducción del ejercicio, frente al 15,1% y 18,4%, respectivamente, de estas últimas. El grupo de "otras" apenas llega al 5,2% de la inversión total y al 3,6% de la deducción.

Atendiendo a los tres sectores básicos de la economía (agricultura, industria y servicios), observamos que el número de sociedades acogidas que pertenecen al sector primario es prácticamente insignificante (11 de 2.764 que suponen sólo el 0,4% del total), y el resto se reparte casi a partes iguales entre los otros dos sectores; si bien la balanza recae un poco más sobre el sector terciario, ya que con 1.427 empresas acogidas acumula el 51,6% del total frente al 48,0% y 1.326 que pertenecen al sector industrial. Este equilibrio de fuerzas se rompe si nos fijamos en la inversión y deducción total del ejercicio, ya que el sector industrial representa las dos terceras partes de ambos conceptos y el sector servicios el otro tercio.

A través de una clasificación mucho más detallada, según el epígrafe en el que figuran dadas de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas, agrupamos a las empresas acogidas en 22 ramas de actividad. La que mayor número de empresas acogidas presenta es la rama del comercio, 749 que suponen el 27,1% del total, y le sigue pero con más de 10 puntos porcentuales menos de representación, los otros servicios comerciales, 461 que suponen el 16,7%.

En cuanto a la inversión total del ejercicio, cabe destacar a dos subsectores, el anteriormente mencionado de otros servicios comerciales (17.275 millones de ptas. y el 12,6%) y el de maquinaria (15.658 millones de ptas. y el 11,4%), aunque también hay otras cuatro ramas que superan los diez mil millones de ptas. de inversión: construcciones metálicas, metálicas básicas, comercio y artículos metálicos. En la deducción total aplicable, siete sectores superan los 1.500 millones de ptas., los seis mencionados con anterioridad más el de transporte y

Kopuruak merkataritzaren 2.651 milioietatik (kopuru osoaren %11,6) oinarritzako metalgintzaren 1.627 milioietara doaz (%7,1).

Aitortutako zenbatekoak entitate aitortzailea helbideraturik dagoen eskualdearen arabera aztertzen bada oso datu esanguratsuak jartzen dira agerian. Donostiak lehen tokia hartzen du bai enpresa kopuruan (651, hau da, kopuru osoaren %23,6), bai inbertsioan (26.198 milioi eta %19,0) bai eta kenkari aplikagarrian ere (4.186 milioi eta %18,4), eta hori gertatzen da batik bat entitate askok hiriburuan dutelako helbide soziala, beren produkzio zentroak probintziako beste toki batzuetan egon arren. Azpimarratu beharreko beste eskualde bat Deba Garaia da: enpresa aitortzaileen %7,9arekin (2.764tik 217), ekitaldiko inbertsioaren %16,3 hartzen du (22.462 milioi pezeta guztira) eta 4.121 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan du (%18,1).

Kopuru garrantzitsuak ageri dituen beste eskualde bat Urola-Kosta dugu. Guztira 269 enpresa bildu dira pizgarrietara (kopuru osoaren %9,7), eta 22.108 milioi pezeta inbertitu dituzte (%16,1), 3.287 milioi pta.ko kenkariak aplikatzera iritsi direlarik. Bestalde, Goierriko eskualdean bildu diren 232 enpresek (kopuru osoaren %8,4k) inbertsioaren %10,8a eta kenkari osoaren %12,0a metatu dute. Aldiz, Bidasoa Beheko eskualdean bildu diren 267 enpresek (%9,6k) portzentaia hauek eman dituzte: %7,4koa inbertsioan eta %6,7koa kenkarian. Donostialdean berriz, 308 enpresa bildu dira (%11,1), 14.375 milioi pezetako inbertsioak egin dituzte (%10,5) eta kenkari aplikagarri osoa 1.885 milioi pezetara heldu da (kopuru osoaren %8,3).

Debe Behean helbideratuta dauden sozietatek (301 enpresa dira guztira, hau da, kopuru osoaren %10,9) 9.689 milioi pezetako inbertsioak egin dituzte, hots, ekitaldiko inbertsio osoaren %7,0a, eta 1.727 milioi pezetako kenkari aplikagarria izan dute (%7,6). Tolosaldean eta Oarsoaldean sozietate kopuru bera bildu da pizgarrietara (217 batean nahiz bestean, hau da, kopuru osoaren %7,9). Hala ere, Tolosaldean 6.785 milioi pezetako inbertsioak eta 1.222 milioi pta.ko kenkariak egin diren bitartean (%4,9 eta %5,4 hurrenez hurren), Oarsoaldean kopuru hauek ageri dira: 5.726 milioi inbertsioak (%4,2) eta 1.067 milioi kenkariak (%4,7).

comunicaciones, dentro de un tramo que va desde los 2.651 millones de ptas. (11,6% del total) del comercio hasta los 1.627 millones (7,1%) de las metálicas básicas.

El análisis de los importes declarados, según la comarca donde se halla el domicilio social de la entidad declarante, pone de manifiesto una serie de datos muy significativos. En principio Donostia ocupa el primer lugar tanto en el número de empresas (651 que suponen el 23,6% del total), como en la inversión (26.198 millones de ptas. y el 19,0%) y en la deducción aplicable (4.186 millones y el 18,4%), sobre todo por el hecho de que muchas entidades, aún teniendo sus centros de producción repartidos por otros puntos de la provincia, mantienen su domicilio social en la capital. Pero también es conveniente resaltar a la comarca del Deba Garaia, que con el 7,9% de las empresas declarantes (217 sobre 2.764) acumula el 16,3% (22.462 millones de ptas.) de la inversión del ejercicio y el 18,1% (4.121 millones) de la deducción aplicable.

Otra de las comarcas con importes que sobresalen de los demás, es la de Urola Kostaldea, ya que las 269 empresas acogidas (9,7% del total) realizan inversiones por valor de 22.108 millones de ptas. (16,1%), lo que permite aplicarse 3.287 millones de ptas. de deducciones. Por otro lado, las 232 empresas (8,4% del total) que se acogen en la comarca del Goierri acumulan el 10,8% de la inversión y el 12,0% de la deducción total, mientras que estos porcentajes llegan al 7,4% y 6,7%, respectivamente para las 267 empresas (9,6%) de la comarca de Bidasoa Behea. En Donostialdea se ha acogido 308 empresas, el 11,1% del total, que realizan inversiones por valor de 14.375 millones de ptas. (10,5%), mientras que la deducción aplicable se eleva a 1.885 millones de ptas. (el 8,3% del total).

Los 9.689 millones de ptas. de inversión de las sociedades domiciliadas en Deba Behea (301 que suponen el 10,9% del total) representan el 7,0% de lo invertido en el ejercicio y los 1.727 millones de la deducción aplicable, el 7,6%. Tanto en Tolosaldea como en Oarsoaldea se han acogido el mismo número de sociedades, 217 que suponen el 7,9% del total, pero mientras en la primera la inversión llega a los 6.785 millones de ptas. (4,9%) y la deducción a 1.222 millones (5,4%), en la segunda estos importes ascienden a 5.726 millones de ptas. (4,2%) y 1.067 millones (4,7%) respectivamente.

Azkenik esan helbide soziala Gipuzkoatik kanpo dutela aitortu duten 85 enpresek (kopuru osoaren %3,1ak) 5.101 milioi pta.ko inbertsioak egin dituztela (%3,7) eta horren ondorioz 1.008 milioi pezetako kenkariak aplikatu dituzketela.

4.1. ARAUDIAREN ALDAKETA

Inbertsioari laguntzeko zerga pizgarrien araudiak 1998an Gipuzkoako Lurralde Historikoan izan duen aldaketarik nagusia honako hau da:

- **1/1998 Foru Araua**, otsailaren 25ekoa, Zerga Neurriei buruzkoa. Zenbait artikulutan hobekuntza tekniko batzuk sartzeaz gainera, epe luzerako inbertsioetan aukera ematen du inbertsioak burutzat jotzeko haiei dagozkien ordainketak egiten diren einean.

Izaera orokorrean, aktibo finko materialaren elementuetan egiten diren inbertsioak martxan jartzen diren unean joko dira egindakotzat. Alabaina, iraupen luzearen inbertsio proiektuak egiten direnean, hau da, ondasunak enkargatzen diren egunetik erabilgarri jartzen diren egunera arte hamabi hilabete baino gehiago igarotzen direnean, subjektu pasiboak ordainketak egin ahalak jo dezake egindakotzat inbertsioa, eta beraien zenbateko berean. Horrelakoetan, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua formalizatzean indarrean zegoen kenkari erregimena aplikatuko zaio. Aukera hori eginez gero, irizpideak inbertsio osorako izango du indarra. Aukera horretaz baliatu nahi den subjektu pasiboak idatziz jakinarazi beharko dio Foru Aldundiari erabaki hori, eta hilabeteko epea izango du horretarako, kontratua izenpetzen den egunetik aurrera. Bertan, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia ere adieraziko ditu. Komunikazioarekin batera kontratuaren kopia bat ere aurkeztuko da.

4.2. METODOLOGIA

Aurreko ekitaldietan bezala, Sozietateen gaineko Zergaren urteko aitortpenean (200 eta 201 ereduak), zerga pizgarriei buruzko orrian, enpresa bakoitzak adierazi dituen datuak hartu dira abiapuntu. Gipuzkoako

Y por último señalar que las 85 empresas (3,1% del total) que declaran tener su domicilio social fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa, realizan inversiones por valor de 5.101 millones de ptas. (3,7%), lo que posibilita que se puedan aplicar 1.008 millones de ptas. de deducciones.

4.1. CAMBIO NORMATIVO

El principal cambio que durante 1998 ha afectado a la normativa de los incentivos fiscales a la inversión en el Territorio Histórico de Gipuzkoa ha sido el siguiente:

- **Norma Foral 1/1998**, de 25 de febrero, de Medidas Fiscales. Además de efectuar ciertas mejoras técnicas en determinados preceptos, se establece en inversiones a largo plazo, la posibilidad de entender realizadas las referidas inversiones conforme se vayan efectuando los pagos que por ellas correspondan.

Con carácter general las inversiones en elementos de activo fijo material se entenderán realizadas en el momento de su puesta en funcionamiento. No obstante, el sujeto pasivo podrá optar, en proyectos de inversión de larga duración en los que transcurran más de doce meses entre la fecha del encargo de los bienes y la fecha de su puesta a disposición, por entender realizada la inversión a medida que se efectúen los pagos y por la cuantía de éstos, con aplicación del régimen de deducción vigente a la fecha en que se formalizó el contrato con el proveedor de los bienes de inversión. Una vez ejercitada la opción, el criterio regirá para toda la inversión. El sujeto pasivo que desee ejercitar dicha opción deberá, en el plazo de un mes contado desde la fecha del contrato, comunicarlo por escrito a la Diputación Foral, señalando el montante de la inversión contratada, el calendario previsto de entrega y pago de los bienes. Asimismo, deberá adjuntarse a la referida comunicación copia del contrato.

4.2. METODOLOGÍA

Al igual que en ejercicios anteriores, se parte de los datos rellenados por cada empresa en la hoja referente a los incentivos fiscales, de la declaración anual del Impuesto sobre Sociedades (modelos 200 y 201). Se tie-

araudia aplikatzen duten enpresak ez ezik, beste foru araudiak nahiz estatukoa aplikagarri dituztenak ere hartu dira kontuan.

Datu horiek kontrolatu eta araztu egin dira azken zifrek funtsa izan dezaten. Azkenik, entitate bakoitzetik lortutako datuei enpresak Gipuzkoan egindako eragiketa bolumenaren portzentaia aplikatu zaie, hau da, analizaturiko datu bakoitza Gipuzkoan egindako eragiketa bolumenaren portzentaiaarekin biderkatu da alde zurretik.

Kontuan hartu behar da (testuan zehar hala izango delako) ezen, inbertsio eta gastuaren zenbatekoak beti 1998ko ekitaldikoak badira ere, kenkariari buruzko kopuruak kenkari aplikagarriari dagozkiola; gerta daiteke zenbateko horiek ekitaldi honetako likidazioan aplikatuta egotea edo ez; izan ere, 7/1996 Foru Arauak 46.2 artikuluan xedatzen duenez, kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren kopuruak hurrengo bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, eta gainera, epeen konputua iraungitze aldiaren barruan emaitza positiboak ematen dituen lehen ekitaldira arte geroratu daiteke. Horrek zera esan nahi du: aipatzen ari garen kenkaria 1998ko ekitaldiko likidazioan egon daitekeela aplikatua edo ez, enpresa bakoitzaren egoeraren arabera eta, gainera, 7/1996 Foru Arauak 46. artikuluan aipatzen dituen zerga onurak aplikatzeko mugak eta hurrenkera kontuan hartuz.

4.3. ZERGA PIZGARRIETARA BILDUTAKO SOZIETATE KOPURUA

1998an zehar 2.764 sozietate bildu dira guztira zerga pizgarrien araudi desberdinetara, hau da, ekitaldi horretan Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu duten 12.934 enpresen %21,4a.

4.1. taulan 1990-1998 epealdian inbertsiorako zerga pizgarrien araudietara bildutako enpresen kopuruak nolako bilakaera izan duen ikus dezakegu.

Aztergai dugun denbora tarte hiru epealditan

nen en consideración tanto a las empresas de normativa foral de Gipuzkoa, como a las de otras normativas forales y a las de normativa estatal.

Estos datos son objeto de una serie de controles y depuraciones, para lograr que las cifras finales tengan consistencia interna. Por último, a los datos resultantes para cada entidad, se les ha aplicado el porcentaje de volumen de operaciones realizado por la empresa en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, es decir, cada dato analizado esta previamente multiplicado por el porcentaje de volumen de operaciones realizado en Gipuzkoa.

Hay que tener en cuenta (y que así será a lo largo del texto) que si bien los importes de inversión y gasto hacen siempre referencia a los realizados durante el ejercicio de 1998, las cuantías de deducción hacen referencia a la deducción aplicable; estos importes pueden no haberse aplicado en la liquidación del presente ejercicio, ya que como cita el artículo 46.2 de la Norma Foral 7/1996, las cantidades no deducidas por insuficiencia de cuota podrán aplicarse en las liquidaciones de los periodos impositivos que concluyan en los cinco años inmediatos y sucesivos, pudiendo diferirse el cómputo hasta el primer ejercicio en que, dentro del periodo de prescripción, se produzcan resultados positivos. Es decir, que la deducción a la que hacemos referencia puede o no puede haberse aplicado en la liquidación del ejercicio 1998, según la situación de cada empresa, y además siempre teniendo en cuenta los límites y orden de aplicación de beneficios fiscales a que hace referencia el citado artículo 46 de la Norma Foral 7/1996.

4.3. NÚMERO DE SOCIEDADES ACOGIDAS A INCENTIVOS FISCALES

Durante 1998 un total de 2.764 sociedades se acogieron a las distintas normativas de incentivos fiscales, es decir, el 21,4% de las 12.934 empresas que presentan declaración en ese ejercicio por el Impuesto sobre Sociedades.

El cuadro 4.1. muestra la evolución del número de empresas acogidas durante el periodo 1990-1998 a las normas reguladoras de los incentivos fiscales a la inversión.

Podemos dividir el periodo objeto de análisis en

CUADRO 4.1. TAULA
Zerga pizgarrietara bildutako sozietate kopuruaren bilakaera
 Evolución del número de sociedades acogidas

URTEA AÑO	SOZIEKATE KOPURUA Nº SOCIEDADES	URTEKO ALDAKETA (%) VARIACIÓN ANUAL (%)
1990	378	--
1991	362	-4,2
1992	290	-19,9
1993	602	107,6
1994	1.566	160,1
1995	2.078	32,7
1996	1.825	-12,2
1997	2.272	24,5
1998	2.764	21,7

banatu dezakegu: lehena 1990etik 1992ra bitartekoa da, eta hemen zerga pizgarrietara bildutako sozietate kopuruak behera egiten du etengabe. 1990ean 378 enpresa bildu ziren pizgarrietara, 1991n 362 (%4,2 gutxiago) eta 1992an 290 (aurreko ekitaldian baino %19,9 gutxiago). Bigarren epealdia 1993. urtetik 1995. urtera doa, eta horretan nabarmen igotzen da pizgarrietara bildutako enpresen kopurua. 1992an 290 enpresa baldin bazeuden bilduta, hurrengo ekitaldian 602 dira guztira (%107,6 gehiago), eta 1994an 1.566, hau da, aurreko ekitaldian baino %160,1 gehiago; azkenik, 1995ean 2.078 enpresa izan ziren pizgarrietara bildutakoak, aurreko urtean baino %32,7 gehiago, eta ia 3,5 aldiz gehiago 1993an baino.

Bi arrazoi daude pizgarrietara bildutako enpresa kopurua urte horietan hainbeste igo izana ulertzeko: lehen arrazoia araudiak 1993an izan duen aldaketa da, 6/1988 Foru Araua indargabetu eta haren ordeiz 11/1993 Foru Araua sartu baitzen indarrean. Honek Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eskura dauzkaten neurrien kopurua gehitzen du batetik, eta bestetik aktibo finko materialean inbertitzeagatik egiten den kenkariaren beharkizunak arintzen ditu (neurri eta beharkizun horiek, gehienetan, 1/1995 Foru Arauan gorde dira, eta batzuetan jaitsi ere bai). Bigarren arrazoiak ziklo ekonomikoaren bilakaerarekin du zerikusia: ekonomiak urte batzuetan atzera egin ondoren (batez ere 1992 eta 1993ko ekitaldietan), 1994. urtean zikloaren fase hedakorrean sartzen gara hazkunde tasa handiekin, neurri txikiagoan 1995ean ere mantendu direnak. Ekonomiaren aldetik oparoak izan diren urte horietan,

tres subperiodos: el primero comprende desde 1990 hasta 1992, donde el descenso del número de sociedades acogidas es continuo. De las 378 empresas acogidas en 1990, pasamos a 362 (un 4,2% menos) en 1991, y a 290 en 1992 (un 19,9% menos que el ejercicio anterior). El segundo subperiodo sería el comprendido entre los años 1993 y 1995, donde el número de empresas acogidas aumenta de manera significativa. De las 290 entidades acogidas en 1992, pasamos el ejercicio siguiente a tener 602 (un 107,6% más); en 1994 la cifra se eleva a 1.566, lo cual supone un aumento del 160,1% respecto al ejercicio anterior; por último en 1995 el número de empresas acogidas se sitúa en 2.078, un 32,7% más que el año anterior y casi 3,5 veces más que en 1993.

El significativo aumento registrado durante esos años en el número de empresas acogidas viene motivado por dos razones: primero, por el cambio normativo producido en 1993, con la entrada en vigor de la Norma Foral 11/1993 que sustituye a la Norma Foral 6/1988, que por una parte amplía el abanico de medidas a las que pueden acogerse los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, y que por otra ablanda ciertos requisitos para poder acogerse a la deducción por inversión en activo fijo material (medidas y requisitos que en la mayoría de los casos se mantienen con la norma aplicable en 1995, Norma Foral 1/1995, e incluso algunos se rebajan). La segunda de las razones tiene que ver con la evolución del ciclo de la economía; después de varios años de recesión y declive económico (sobre todo los ejercicios 92 y 93) entramos en el año 1994 en la fase expansiva del ciclo con fuertes tasas de crecimiento, que se mantienen aun-

enpresen egoerak hobera egin du eta, beraz, inbertsioetan egindako gastuak ere hazi egin dira.

*Hirugarren epealdia azken hiru ekitaldiek osatzen dute. 1996an, zerga pizgarrietara bildutako enpresa kopurua 1.825eraino jaitsi da, aurreko ekitaldian 2.078 diren bitartean (%12,2 gutxiago beraz.) Beherakada horren zergatia honako hau da batik bat: Gipuzkoako foru araudia aplikatzen duten enpresentzat 7/1996 Foru Arauak ez duela jasotzen beste aktibo finko material batzuetan egindako inbertsioaren %5eko kenkaria; aurreko arauak, ordea, jaso egiten zuten eta gainera horixe zen enpresek gehien erabiltzen zuten neurria. 1997an, aldiz, pizgarrietara bildutako sozietateen kopurua 2.272raino igo da (%24,5 gehiago) eta zifra hori 2.764raino iritsi da 1998an. Izan ere, perspektiba ekonomiko onak eta zikloaren goranzko fasea lagungarri gertatu dira gero eta enpresa gehiagok inbertsio gastueta-
ra bidera dezaten bere baliabideen zati bat.*

*Jarraian neurritz neurri aztertuko dugu zenbat entitate bildu diren zerga pizgarrietara. Enpresa batek neurri batera baino gehiagora biltzea baduenez, 4.2. taulan ageri den sozietate kopuruak ez du zertan bat etorri-
rik azpitotalen baturarekin.*

4.3.1. INBERTSIO PRODUKTIBOETARAKO ERRESERBA BEREZIA ETA INBERTSIOA AKTIBO FINKO MATERIALEAN

Guztira 85 sozietate bildu dira ekitaldi honetan inbertsio produktiboetarako erreserba berezira (92 izan ziren aurreko ekitaldian), hau da, %7,6 gutxiago.

Ekitaldi honetan zehar enpresa batek bakarrik aplikatu du Beste Inbertsio Batzuen kenkaria (gogoan eduki behar da kenkari hau estatuko araudiari lotuta dauden entitateek baino ezin dutela aplikatu eta, gainera, ia bakarrik aurreko ekitaldietan egin diren baina 1998an martxan jartzen diren inbertsio handiak badira). Gainera, sekretu estatistikoa gordetzeko, kenkari hori aktibo finko material berrietan egindako inbertsioen barruan sartu da. Aurreko ekitaldiarekin konparatu ahal izateko, 1997an beste inbertsio batzuen kenkariak aplikatu zituzten bi enpresentzat prozesu berberari jarraitu zaio.

que en menor medida durante 1995; en estos años de bonanza económica la situación de las empresas mejora, por lo que sus gastos en inversiones también se ven afectadas favorablemente.

El tercer subperiodo, es el comprendido entre los tres últimos ejercicios. Para 1996, el número de entidades acogidas desciende hasta los 1.825, frente a los 2.078 del ejercicio anterior, es decir, un 12,2% menos. Este descenso se debe sobre todo al hecho de que para las empresas de normativa foral de Gipuzkoa, la nueva Norma Foral 7/1996, no contempla la deducción del 5% del importe de la inversión en otros activos fijos materiales, medida que si incluían normativas anteriores, y que era a la que más entidades se acogían. Sin embargo, para 1997 el número de entidades acogidas asciende hasta los 2.272, un 24,5% más y para 1998 se eleva a 2.764, y es que de nuevo las buenas perspectivas económicas y la fase ascendente del ciclo, hacen que un mayor número de empresas dediquen parte de sus recursos a gastos en inversión.

Analizamos a continuación, medida por medida, el número de entidades acogidas a los incentivos fiscales. Al poderse acoger una misma empresa a más de una medida, el total de sociedades acogidas del cuadro 4.2. no tiene porqué coincidir con la suma de los subtotales.

4.3.1. RESERVA ESPECIAL PARA INVERSIONES PRODUCTIVAS E INVERSIÓN EN ACTIVO FIJO MATERIAL

Han sido 85 el número de sociedades que se han acogido este ejercicio a la Reserva Especial para Inversiones Productivas, frente a las 92 del anterior, es decir, un 7,6% menos.

Durante este ejercicio a la deducción por Otras Inversiones (esta deducción es aplicable únicamente para entidades de normativa estatal, y además de manera prácticamente residual para grandes inversiones realizadas en ejercicios anteriores, pero que entran en funcionamiento en 1998) se ha acogido una única empresa y para salvaguardar el secreto estadístico se ha incluido a la misma dentro de las inversiones en activos fijos materiales nuevos. Para hacer posible la comparación con el ejercicio anterior, se ha realizado el mismo proceso para las dos empresas que se aplicaron deducciones por Otras inversiones en 1997.

Aktibo finko materialean inbertitzeagatik egiten den kenkarira 1.461 sozietate bildu dira guztira, hots, aurreko ekitaldian baino %17,3 gehiago (1.245 sozietate).

Orotara, aktibo finko materialean egindako inbertsioengatik 1.512 enpresa bildu dira zerga pizgarrietara, aurreko ekitaldian baino %16,2 (1.301 enpresa bildu ziren urte horretan)

4.3.2. BESTE INBERTSIO BATZUK

Beste inbertsio batzuk izenpean honako gastu eta inbertsio hauek bildu ditugu: ikerkuntza eta garapen programak, interes kultureleko ondasunak, liburugintza eta zinemagintza, esportazio jarduerak, ingurugiroaren artapen eta hobekuntza, errenta aldakorreko baloreen eskurapena, eta kapital arriskuko sozietate eta fondoei, enpresen sustapenerako sozietateei, interes ekonomiko elkartei eta interes ekonomikoko elkarte europarrei egindako diru ekarpenak. Azkenik, enpresako langileen prestakuntzarako gastuak ere jaso ditugu.

Jarraian neurri bakoitzera bildutako enpresa kopuruak zein bilakaera izan duen aztertuko dugu banan-banan.

Guztira 97 enpresa bildu dira ekitaldi honetan ikerkuntza eta garapen teknologikoko programetan inbertitzeagatik egiten den kenkarira (aurreko ekitaldian 99 enpresa bildu ziren), hau da, %12,9 gutxiago.

Interes kultureleko ondasunetan eta liburu eta zinemagintzan egindako inbertsioen kenkarira 6 enpresa bildu dira. Aurreko urtean 9 izan ziren bildutakoak.

Esportazio jardueretan aritzeagatik egiten den kenkarira 203 enpresa bildu dira guztira (1997an 184 bildu ziren), hau da, %10,3 gehiago.

5 enpresak aplikatu dute jarduera enpresarialaren eragin kutsagarria murriztu eta zuzentzeko aktibo finko material berrian inbertitzeagatik egiten den kenkaria. Aurreko ekitaldian 4 enpresak aplikatu zituzten kenkariak kontzeptu honengatik.

A la deducción por inversión en activo fijo material se han acogido 1.461 sociedades, un 17,3% más que el ejercicio anterior (1.245 sociedades).

En total, por inversiones en activo fijo material, se han acogido 1.512 empresas, un 16,2% más que las 1.301 del ejercicio anterior.

4.3.2. OTRAS INVERSIONES

Bajo el concepto de Otras Inversiones, agrupamos el siguiente colectivo de gasto e inversión: programas de investigación y desarrollo, bienes de interés cultural, edición de libros y producción cinematográfica, actividades de exportación, conservación y mejora del medio ambiente, adquisición de valores de renta variable, aportaciones dinerarias a Sociedades y Fondos de Capital Riesgo, a Sociedades de Promoción de Empresas, a Agrupaciones de Interés Económico y a Agrupaciones Europeas de Interés Económico, y, por último, los gastos dedicados a la formación profesional de los empleados de la empresa.

Pasamos a continuación a ver una a una, cual ha sido la evolución del número de empresas acogidas a cada medida.

Un total de 97 empresas se han acogido durante este ejercicio a la deducción por inversión en programas de investigación y desarrollo tecnológico, frente a las 99 del anterior, es decir, un 2,0% menos.

A la deducción por inversión en bienes de interés cultural, edición de libros y producción cinematográfica se han acogido 6 empresas, frente a las 9 del año anterior.

A la deducción por actividades de exportación se han acogido un total de 203 empresas, frente a las 184 de 1997, es decir, un 10,3% más.

Han sido 5 empresas las que se han acogido a la deducción por inversión en activo fijo material afecto directamente a la reducción y corrección del impacto contaminante de la actividad de la empresa, mientras que por el mismo concepto el ejercicio anterior se aplicaron deducciones 4 empresas.

CUADRO 4.2. TAULA
1997-1998 urte bitarteko zerga pizgarrien bilakaera
Evolución de los incentivos fiscales 1997-1998

KONTZEPTUA	CONCEPTO	SOZIEI.KOPURUA			INBERTS. ETA GASTUA			KENKARIA		
		Nº DE SDAES.			INVERS.Y GASTO			DEDUCCIÓN		
		1997	1998	Bariazioa (%) Variación (%)	1997	1998	Bariazioa (%) Variación (%)	1997	1998	Bariazioa (%) Variación (%)
- Inbertsio produktiboetarako erreserba berezia	- Reserva especial de inversiones productivas	92	85	-7,6	8.823	3.383	-61,7	882	340	-61,5
- Inbertsioak aktibo finko material berrietan	- Inversiones en Activos Fijos Materiales nuevos	1.245	1.461	17,3	74.380	92.239	24,0	10.930	13.697	25,3
INBERTSIOAK A.F. MATERIALETAN	INVERSIONES EN A.F.M.	1.301	1.512	16,2	83.204	95.622	14,9	11.812	14.037	18,8
- Ikerkuntza eta garapena	- Investigación y desarrollo	99	97	-2,0	6.094	5.931	-2,7	1.686	1.666	-1,2
- Int.kulturaleko ondasunak, liburu eta zinemagintza	- Bienes interés cultural, libros y prod.cinematogr.	9	6	-33,3	399	425	6,4	32	41	27,4
- Esportazio jarduerak	- Actividades de exportación	184	203	10,3	5.731	8.364	45,9	1.433	2.091	46,0
- Ingurugiroaren artapen eta hobekuntza	- Conservación y mejora medio ambiente	4	5	25,0	422	165	-61,0	54	17	-68,3
- Errenta aldatzeko baloreen eskurapena	- Adquisición valores renta variable	55	76	38,2	27.020	23.171	-14,2	1.410	1.395	-1,0
- Diru ekarpenak	- Aportaciones dinerarias	49	60	22,4	1.182	2.089	76,7	230	370	60,7
- Langileen prestakuntza	- Formación del personal	368	428	16,3	1.965	1.718	-12,6	220	187	-14,9
I+G GAST. ETA INBERTS., ESPORT., LANG. PREST.	GTOS. E INVERSIÓN EN I+D,EXPORT.,FORM.PERS.	520	611	17,5	42.813	41.863	-2,2	5.065	5.768	13,9
- Kenkari orokorra enplegua sortzeagatik	- Deducción general por creación de empleo	1.431	1.967	37,5				1.679	2.735	62,9
- Lan munduan sartzeko arazoak dituztenen kenk.	- Deducción colectivos difícil inserción laboral	88	128	45,5				267	231	-13,6
ENPLEGU SORRERA	CREACIÓN DE EMPLEO	1.473	2.007	36,3				1.946	2.966	52,4
GUZTIRA	TOTAL	2.272	2.764	21,7	126.016	137.485	9,1	18.823	22.771	21,0

Zenbatekoa milioi pezetaketan / Importe en millones de pesetas

Errenta aldatzeko baloreak eskuratzegatik 76 entitate bildu dira kenkari honetara, 1997an 55 izan ziren bitartean (%38,2 gehiago).

Kapital arriskuko sozietate eta fondoet, enpresen sustapenerako sozietateei, interes ekonomikoko elkarteetara eta interes ekonomikoko elkarte europarrei diru ekarpenak egiteagatik 60 entitatek aplikatu dituzte kenkariak, hau da, aurreko ekitaldian baino %22,4 gehiago (49 enpresak aplikatu zituzten kenkariak urte horretan).

Langileen prestakuntzarako gastuengatik egiten den kenkaria bildutako enpresen kopurua %16,3 igo da: 1997an 368 izatetik 428 izatera pasa dira 1998an.

4.3.3. ENPLEGUA SORTZEA

Enplegu sorreraren kenkarira bildu diren 2.007 enpresetatik, 1.879 kenkari orokorrera bakarrik bildu dira, 40 kenkari berezira soilik eta 88 enpresa, berriz, bi kenkarietara.

El número de entidades acogidas a la deducción por adquisición de valores de renta variable se ha elevado a 76, frente a las 55 de 1997 (un 38,2% más)

Por aportaciones dinerarias a Sociedades y Fondos de Capital Riesgo, a Sociedades de Promoción de Empresas, a Agrupaciones de Interés Económico y a Agrupaciones Europeas de Interés Económico se han aplicado deducciones un total de 60 entidades, un 22,4% más que las 49 del ejercicio anterior.

Un aumento del 16,3% ha experimentado el número de empresas acogidas a la deducción por gastos en formación de personal, al pasar de 368 en 1997 a 428 en 1998.

4.3.3. CREACIÓN DE EMPLEO

De las 2.007 empresas que se acogen a la deducción por creación de empleo, 1.879 lo hacen únicamente deducción general, 40 sólo a la deducción especial y son 88 empresas las que se acogen a ambas deducciones.

Bildutako entitate kopurua %36,3 igo da aurreko ekitaldiaren aldean: 1.473tik 2.007ra pasatu dira. Kenkari orokorra aplikatu dutenen kopurua 1.431 izatetik 1.967 izatera pasatu da (%37,5 gehiago), eta kenkari berezira bildutakoak, berriz, 88tik 128ra (%45,5 gehiago).

4.4. INBERTSIOA, GASTUA ETA KENKARIA

Pizgarrietara bildu diren 2.764 enpresek ekitaldian zehar egindako inbertsio eta gastu osoa 137.485 milioi pezetakoa izan da guztira, eta kenkari osoa, berriz, 22.771 milioi pezetakoa. Batez beste, enpresa bakoitzaren inbertsioa eta gastua 49,7 milioi pezetakoa izan da eta kenkari aplikagarria 8,2 milioi pezetakoa.

Lehen adierazi den bezala, kenkariaren zenbatekoak enpresak aplikagarri duen kenkariari dagozkio, ez ekitaldiko likidazioan benetan aplikatu den kenkariari.

4.2. taulan honako xehetasun hauek ematen dira zerga neurri bakoitzeko 1998ko ekitaldian zehar: enpresa kopurua, egindako inbertsio eta gastua eta kenkari aplikagarria. Lehen zutabeaz zerga neurri bakoitzera bildutako sozietate kopurua ageri da; enpresa bera neurri batera baino gehiagora bildu daitekeenez, totalak ez du zertan bat etorririk azpitotalen baturarekin. Bigarren zutabeaz, berriz, ekitaldian zehar neurri bakoitzeko egindako inbertsioa eta gastu kengarria jaso dira. Azkenik, hirugarren zutabeaz, zerga neurri bakoitzeko aplikagarria den kenkariaren zenbatekoa ikus daiteke.

4.4.1. INBERTSIO PRODUKTIBOETARAKO ERRESERBA BEREZIA ETA INBERTSIOA AKTIBO FINKO MATERIAL BERRIAN

Hauxe da, zalantzarik gabe, zerga neurri nagusia inbertsio eta gastuari nahiz kenkariari dagokienez: inbertitutako 95.622 milioi pezetak inbertsio osoaren %69,6a dira, eta 14.037 milioi pezetako kenkariak, berriz, kenkari guztien %61,6a.

Inbertsio produktiboetarako erreserba bereziaren zuzkidura 3.383 milioi pta.koa izan da (ekitaldian inbertitutakoaren %2,5), eta 340 milioi pezetako kenkariak egin dira guztira (kopuru osoaren %1,5).

El número de entidades acogidas ha aumentado un 36,3% respecto al ejercicio anterior, pasando de 1.473 a 2.007; las acogidas a la deducción general pasan de 1.431 a 1.967 (37,5% más) y las acogidas a la deducción especial, de 88 a 128 (45,5% más).

4.4. INVERSIÓN, GASTO Y DEDUCCIÓN

La inversión y gasto total realizado durante el ejercicio por las 2.764 empresas acogidas ascendió a 137.485 millones de ptas., y la deducción total a 22.771 millones de ptas. Por término medio, la inversión y gasto realizado por cada empresa se elevó a 49,7 millones de ptas. y la deducción aplicable a 8,2 millones de ptas.

Como se ha comentado con anterioridad, los importes de deducción hacen referencia a la deducción aplicable por la empresa, y no a la realmente aplicada en la liquidación del ejercicio.

El cuadro 4.2. muestra el número de empresas, la inversión y gasto realizados y la deducción aplicable en detalle por cada medida fiscal durante el ejercicio 1998. La primera columna muestra el número de sociedades acogidas a cada medida; al poderse acoger una misma empresa a más de una medida, el total no tiene por qué coincidir con la suma de los subtotales. La segunda columna muestra el importe de la inversión y gasto deducible realizado durante el ejercicio por cada medida. Y por último, la tercera columna muestra el importe de la deducción aplicable por cada medida fiscal.

4.4.1. RESERVA ESPECIAL PARA INVERSIONES PRODUCTIVAS E INVERSIÓN EN ACTIVO FIJO MATERIAL NUEVO

Esta es la medida fiscal más importante tanto en términos de inversión y gasto como de deducción, ya que con 95.622 millones de ptas. supone el 69,6% del total invertido, y con 14.037 millones de ptas., el 61,6% de la totalidad de deducciones.

El importe total de la dotación a la Reserva Especial para Inversiones Productivas se ha elevado a 3.383 millones de ptas. (2,5% del total de inversión del ejercicio), siendo el importe de la deducción de 340 millones de ptas. (1,5% del total).

Aktibo berrietan egindako inbertsioa 92.239 milioi pezetakoa izan da (kopuru osoaren %67,1) eta kenkaria 13.697 milioi pta.koa (%60,1).

Inbertsio produktiboetarako erreserbaren zuzkidura %61,7 jaitsi da aurreko ekitaldiaren aldean, eta horren kenkari aplikagarriak %61,5 egin du behera. Inbertsioa 8.823 milioikoa izatetik 3.383 milioikoa izatera pasa da, eta kenkari aplikagarria, bere aldetik, 882 milioi pezetatik 340 milioi pezetara.

Aktibo finko materialetan egindako inbertsioen zenbatekoa %14,9 igo da aurreko ekitaldiarekin konparatuta (83.204 milioikoak izatetik 95.622 milioikoak izatera pasa dira), eta kenkari aplikagarria %18,8 gehitu da (11.812 milioitik 14.037 milioira).

Aktibo finko material berrietan egindako inbertsioak %24,0 igo dira aurreko ekitaldiarekin konparatuta (74.380 milioikoak izatetik 92.239 milioikoak izatera pasa dira), eta kenkari aplikagarria %25,3 gehitu da (10.930 milioitik 13.697 milioira).

4.4.2. BESTE INBERTSIO BATZUK

Ikerkuntza eta garapen teknologikoko programean egindako inbertsio eta gastua 5.931 milioi pezetakoa izan dira (kopuru osoaren %4,3); horrek aukera eman du 1.666 milioi pezetako kenkariak egiteko, hau da, kenkari guztien %7,3a. Inbertsioa eta gastua %2,7 jaitsi da, 6.094 milioikoa izatetik 5.931 milioikoa izatera pasa delako; kenkari aplikagarria, berriz, %1,2 jaitsi da, 1.686 milioi pezetatik 1.666 milioi pezetara pasatuz.

Interes kultureko ondasunetan eta liburu nahiz zinemagintzan 425 milioi pezeta inbertitu dira guztira (399 milioi aurreko ekitaldian). Kontzeptu honek 41 milioi pezetako kenkari aplikagarria eman du, 1997an 32 milioikoa izan zen bitartean.

